

DATORRENA

Polonia eta «El Mundo»
zerbaiten eredu bailiran **IÑAKI SOTO > 3**

GATAZKA ARMATUAK: Emakumeak
bakea eraikitzen El Salvadorren,
Guatemalan eta Kolonbian **> 4**

2024ko urriaren 26a | XVIII. urtea • 899. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ANTZUOLAK ETORKIZUNEN HILERRIA BEGIZTATU DU

NOLAKO HILERRIA IRUDIKATZEN DUZU 30 URTE BARRU? URTEBETEZ, ANTZUOLAKO HERRIAK GOGOETA PARTEHARTZAILEA EGIN DU GALDERA HORRI ERANTZUTEKO. HERRI ESKOLATIK ELIZAREN BUELTRAN IBILTZEN DIREN EMAKUMEETARAINO, HERRI OSO BATEK EGIN DU HAUSNARKETA ARIKETA BEREZIA. **> 12** Jaizki FONTANEDA | FOKU



4



17



22



Bakegintzan dabilzan El Salvador, Guatemala eta Kolonbiako emakumeen testigantza 04

Ikusmira: Gazako iparraldea, genozidioaren agertoki 09

Etorkizuneko hilerria irudikatu dute Antzuolako herritarrek 12

Gau Beltza, garai bateko errituak gaurkotzeko aukera bikaina 17

Zaldi-hazleen mundura hurbilpen bat, Zornotzako Zaldialdiaren aitzakian 22

Ordu-aldaketaren eraginak leuntzeko gakoak 26

Zeanuri eta Ubideko larreen bakea berretsiko dute aurten ere 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



26



28

SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Polonia eta «El Mundo» zerbaiten eredu bailiran
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Eskuragarritasun emozionala
- 16 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Luixa Reizabal Arruabarrena:** Bullyingetik genozidiora: pasibotasunari buruzko gogoeta psikologikoa
- 21 **Xabier Izaga:** Deskontua, luzamendua, merkealdia eta pagotxa
- 27 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Goizetik txigortuta
- 27 **Miren Azkarate Badiola:** Taka-takaz etorri den postala
- 30 **Naiara Aginako Bengoa:** Aro digitalean, datuak dira urre berria



{ datorrena } Iñaki SOTO

Polonia eta «El Mundo» zerbaiten eredu bailiran

Azken aste hauetan Pablo Gonzalez buruzko hainbat albiste argitaratu dira eta horrek zalaparta eta zalantza batzuk sortu ditu. Jendaurrean eta «off the record» horri buruz galdetu didate. Nire ideiak argitu behar izan ditut, eta arieta horretaz baliatzen naiz hemen azaltzeko.

Pablori buruz nuen ideia orokorra ez da aldatu. Beti pentsatu izan dut Pablo Gonzalezek harremanak izan dituela Errusiako zerbitzu sekretuekin, kazetari gisa oso iturri onak zituelako. Hala ere, hori normala da gure lanbidean. Ziur nago euskal kazetari ospetsuetakok askok espainiar, frantziar, britainiar, israeldar... zerbitzuekin ere izan dutela harremana. Orain Pablori buruz zalantzak dituztenek, enbaxadetan egon direnean, zer uste zuten zirela bertan beraiekin bilduta zeuden horiek? Kulturen eta negozioetan diharduten diplomatikoak? Ez gaitezen inozoak izan. Are gehiago, ez gaitezen hipokritak edo zitalak izan.

Nire ustez, eztabaida ez delako hori. Kazetari onen lanaren parte da harreman horiek izatea poliziek, espioiek, diplomatikoekin... Pablori gertatu zaiona ulertzeko, erregimen autoritarioak, are eta formalki demokratikoak diren gobernu asko ere, kazetaritzaren aurka ari direla ulertu behar dugu. Kazetariak jartzan dituzte eta kazetaritza ito nahi dute. Aste honetan Londresen izan naiz, gai hauei buruzko topaketa batean, Trust Conference delakoan, eta hori diote han bildutako guztiek. Kazetariak defendatu behar ditugu, arriskuan daudelako, eta horrek arriskuan jartzen du demokrazia. Pablo jazarritako kazetaria izan da, eta defendatu beharra zegoen.

Autoritarismoarekin jarraituz, Poloniako zuzenbide-estatuaren egoera eztabaida interesgarria eta beharrezkoa da. Estatu autoritarioa da, eta giza eskubideen aldeko hainbat erakundek salatu dute ez dituela zuzenbide-estatu baten gutxieneko baldintzak betetzen. Ikusteke dago gobernu-aldaketak gainberrira demokratiko hori lehengoratzea lortzen duen. Pa-

bloren atxiloteta bidegabea izan zen eta bere espetxeratzea eskubideen aurka doa. Ez zioten formalki ezer leporatu bi urte eta erdiz, eta orain atera dituzten datuek ez dute inolaz ere justifikatzen jasan duena. Nire jarrera ez da aldatu. Poloniako auzitegiek ez zuten era justu batean epaitu nahi izan, eta nik ez dut "El Mundo" egunkariaren epaiketarik erosiko. Niretzat, ez da iturri fidagarria.

Beste komunikabide fidagarri batzuek, "The Guardian" adibidez, Gonzalezen gaineko susmoak zabaltzen dituzte, baina kontu handiagoz ibili dira. Hala ere, bi kritika egiten dizkiet artikulu horiei. Uste dut «Basque» terminoa etiketatzeko eta susmo bat elikatzen erabiltzen dela. Bestalde, euren lanaren zati bat baino ez dute egin: Putinek Pablori eskua emanez atentzioa ematen du, baina Joe Biden AEBetako Indar Armaturen komandante buruak ere ongi-etorria egin zion Evan Gershkovich-i.

Hain zuzen ere, nik Pablo Gonzalez Evan Gershkovich bezala tratatzea eskatzen dut, ez gehiago ez gutxiago. Gurasoak errusiarrak zituen, AEBetan errefuxiatu zirenak. Pasatu den unibertsitateetan CIA dabil jende bila. Ezin dut sinetsi Errusiara korrespondentsal gisa joatean haiekin bildu ez izana, turista gisa sartzeko hirugarren gradua igaro behar den herrialde batean. Baina nik dakidanez, Gershkovich-ek kazetari lanak egin ditu Moskun, ondo egin ere, eta horregatik atxilotu zuten. Horregatik kondenatu zuten, espioitza egozten badiote ere, kazetaria izateagatik. Horregatik uste dut askatu behar zutela. Pablo bezala, berdin.

Edonola ere, nik uste dut Pablo kazetari ona dela. Guretzat egin zuen lana ona eta profesionala izan zen. Horrek ez du esan nahi, agian, espioi txarra ez zenik. Orain, uste dut hori ezin izango dela jakin, egin diotenaren ondorioz, ezin izango baitu inoiz bidezko epaiketarik izan. Ez epaitegietan, ezta komunikabideetan ere. Defendatuko dela pentsatzen dut, eta ni ere bera entzuteko irrikitan nago. Bizitza hondatu diote, eta horren aurka ere banago. •

GATAZKA ARMATUEI AURRE EGITEN

Bakea eraikitzen El Salvadorren, Guatemalan eta Kolonbian

El Salvadorretik, Guatemalatik eta Kolonbiatik etorri berritan, Morena Herrera, Yeni Jiron, Sonia Elizabeth Moreno, Dora Miron, Constanza Ramirez, Luz Marina Monzon eta Luz Marina Hache GAUR8rekin mintzatu ziren ordubete luzez bidaiaren nekea alde batera utziz. Mahai gainean gai potoloak: gatazka armatuen ondorio zabalak, desagerpenak, biolentzia sexuala gerra arma gisa, “marak”, bakearen eraikuntza, zaintza, erresilientzia...

Bakoitzak bere errealitatetik eta bizipenetatik, iragana, oraina eta etorkizuna uztartu dituzte. Helburua eta ametsa, bakearen eta mundu hobe baten eraikuntza, gerraren zauriak egia, justizia eta aitortza- ren bidez osatuz.

GATAZKA ETA EMAKUMEAK

«El Salvadorko Egiaren Batzordeak ez zituen kontuan hartu gatazka armatuaren barnean egon ziren bortxaketak. Sexu erasoak egon ziren, baita salaketak ere, baina Egiaren Batzordeak ez zituen aintzat hartu bere txostenean 1993. urtean. Ez zen ezjakintasunagatik izan, zeren gerran biolentzia sexuala egon zela jakina zen. Baina ez zuten emakumearen diskriminazioarekin eta berdintasun ezarekin lotuta dagoen arazo estruktural bat bezala aztertu», adierazi du El Salvadorko Morena Herrerak, gerrillari ohia eta giza eskubideen aldeko ekintzailea denak.

1990ean Las Dignas erakunde feministaren fundatzailea izan zen. Egun, Abortuaren Despenalizazioaren aldeko Herritarren Elkarteko presidentea da,

INDARKERIA / Ainara LERTXUNDI

Morena Herrera, Yeni Jiron, Sonia Elizabeth Moreno, Dora Miron, Constanza Ramirez, Luz Marina Monzon eta Luz Marina Hache El Salvador, Guatemala eta Kolonbiako ekintzaileak eta giza eskubideen defendatzaileak dira. Euskal Herrian izan dira berriki Mugen Gaietik gobernuz kanpoko erakundearen eskutik. GAUR8 beraiekin mintzatu da gatazka armatuek emakumeengan, haurrengan eta, oro har, gizarteengan dituzten ondorioei buruz.

eta Toki Garapenerako Kolektibo Feministako kide ere bada. 2023an Europako Parlamentuak giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen defentsan laguntzen duten pertsoneri eta erakundeei ematen dien Sakharov sarirako izendatu zuten Herrera.

Iaz, gerra beteranoez osatutako bi emakume elkartek biolentzia sexualaren gaineko ikerketa bat aurkeztu zuten. «Kide batzuentzat gogorra izan zen, ez hainbeste Indar Armatuek egindako bortxaketengatik, baizik eta gizonezko gerrillariak beraien kide gerrillarien kontra egindako sexu erasoengatik. Bestelako jokabidea eta zaintza espero zuten gizon gerrillarien aldetik. Gerrillaren aldetik biolentzia sexuala ez zen arma gerra bat izan, bai, ordea, Indar Armatuentzat, baina arazoaren aurrean kezka handiago bat egon behar izan zen».

«Guatemalan –gaineratu du Sonia Elizabeth Morenok, San Carlos Unibertsitateko Historia Eskolan Antropologian lizentziadunak– norberarenaz hitz egin aurretik maila orokorrean hitz egiten hasi ginen, batzuetan norberarenak min egiten baitu. Morenak esan duena oso garrantzitsua da, zeren gatazka armatu batean emakumeak, eta bereziki emakume indigenak eta mesti-

zoak, sexu biolentziaren biktime dira, sexu-indarkeria arma gerra bat bihurtzen baita. Guatemalan, Historia Argitzeko Batzordearen eta Eliza katolikoaren txostenetan, bortxaketak aipatzen badira ere, ez dira gerra arma gisa identifikatzen», nabarmendu du.

Giza eskubideetan, herri indigenen, emakumeen, haurren eta gazteen eskubideetan, ingurumenaren eta lurraldearen defendatzaileak babesteko neurrietan, biktimologian, gatazka armatuek eragindako biktimen eta biziraun dutenen auziak giza eskubideen ikuspegitik sistematizatzen eta Egiaren Batzordeetan trebatu da Moreno.

Izabal departamentuko Q´eqchis herri indigenako emakumeak aipagai ditu. Bi emakume taldek giza eskubideen defentsan ari diren mugimenduekin eta abokatuekin batera militarren kontrako prozedura judizial bat abiatu zuten esklabotza sexualarengatik. Hainbat soldadu eta militar zigortu zituzten. Epaike-tan, agerian gelditu zen sistematikoki bortxatuak izan zirela eta emakumeak esklabo sexual gisa erabili zituztela.

«Epai honek garrantzi handia du Erdialdeko Amerikarentzat eta Latinoamerikarentzat,

zeren lehen aldiz munduan indarkeria sexuala gerra-arma gisa auzitegi nazionaletan epaitu zen. Ruanda edo Jugoslaviaren kasuan prozesu judizialak sistema judizial nazionaletatik kanpo egin ziren. Guatemalako sistema judizialak eman zuen epaia, eta onartu zuen Sepur Zarco komunitateko emakumeek esklabotza eta sexu-indarkeria jasan zituztela gerra arma gisa», azpimarratu du Morenok.

1982ko abuztuan Sepur Zarco komunitateko emakumeak sexualki bortxatu zituzten soldaduek euren etxeetan, seme-alaben aurrean. Egun batzuk lehenago, Armadako kideek



emakumeen senarrak bahitu eta desagerrarazi zituzten. Beren lurren jabetza tituluak lortzeko antolatu ziren nekazari soilak ziren. Une horretatik aurrera, emakumeek esklabotza sexuala eta etxeko esklabotza jasan behar izan zuten destakamentu militarrean, sei hilabete eta sei urte tartean.

«Txandaka» antolatuta, bi egunean behin destakamentura aurkeztera behartzen zituzten, eta sistematikoki eta modu askotara bortxatu zituzten. Esklabotza sexualari etxeko esklabotza gehitu zitzaion, janaria prestatzeko eta soldaduen uniformeak garbitzeko betebeharra baitzuten.

Goiko lerroan, ezkerretik eskuinera, Luz Marina Hache, Yeni Jiron, Sonia Elizabeth Moreno. Behean, Morena Herrera, Constanza Ramirez, Luz Marina Monzon eta Dora Miron. Andoni CANELLADA | FOKU



Morenok nabarmendu duenez, «auzitegi batek indarkeria sexuala gerra arma gisa aitortu izana munduko emakumeen borrokari» esker lortu da, batez ere «gatazka armatuak bizi izan ditugun eta Armaden logika 'kontrainsurgentetik' indarkeriak pairatzen jarraitzen dugun gizarteei esker».

«Emakume indigenak kanporatuak direnean, haien etxeak, animaliak, artoa, arropa... erretzen dituzte. Eta horretaz guztiaz gain, bortxatu egiten dituzte gaur egun ere. Iragana gogorarazten digu».

Bere hitzetan, «herrien eta emakumeen borrokarako oso garrantzitsua da gatazka armatuek emakumeengan izan dituzten ondorioak aitortzea, eta sexu-indarkeria ardatza da. Historia Argitzeko Nazio Batuetako Batzordeak ondorioztatu zuenez, 1981etik 1983ra Guatemalan Indar Armatuek genozidio ekintzak egin zituzten».

Luz Marina Hache kolonbiarra da. 1986ko azaroaren 20an bere bikotekide Eduardo Loffner Torres desagerrarazi zuten. 2005ean Estatu Krimenen Biktimen Mugimenduaren (MOVICE) sorrera bultzatu zuen eta hango bozeramaile bihurtu zen. Bortxazko desagerepenen, epaiketaz kanpoko exekuzioen eta Kolonbiako desplazamenduen biktimen 200 erakunde baino gehiago ordezkatzan ditu plataformak. Paramilitarren atentatu bat jasan ostean, 2000. urtean, Jose Alvear Restrepo Abokatuen Kolektiboari eta Amnesty Internationali esker, Lyon en erbesteratu zen.

«2016an Gobernuak FARC-EP gerrillarekin sinatu zuen bake akordioak esperantzaz bete gintuen. Baina Kolonbian ez dago bakerik, Estatuak ez du bete sinatutakoa eta legez kanpoko eragile armatuek existitzen ja-

rraitu dute, horien artean, paramilitarrak, Estatuaren parte direnak», gaitzetsi du Hachek.

«Estatua gizarte kolonbiarrak pairatu dituen krimenen erantzulea da, bai ekintzaz bai omisioz ere. Paramilitarrak Indar Armatuek egin ezin dezaketan lan zikinaz arduratzen dira. Bake akordioei esker, sexu-indarkeria azaleratu da. Baina Kolonbian zortzi milioi desplazatu ditugu, gehienak emakumeak eta horietatik %60 sexu-biolentzia pairatu dutenak, bai beraien kontra baita beraien seme-alaben kontra ere. Biolentzia horren erantzulerik ez dago, zeren errazena horrelakorik ez dela gertatu esatea da», dio kolonbiarrak.

«Kezkagarriena», Hacheren hitzetan, gatazka armatuaren jarraipena da. «Paramilitarren, FARC-en disidentzien, beste gerrilla batzuen eta narkotrafikoaren biktimak izaten jarraitzen dugu. Narkotrafikoa Kolonbiako sektore guztietan sartuta dago. Eta Gobernuak aldatu den arren eta Gustavo Petro presidenteak emakumeoi aitortza eta ikusgarritasuna eman nahi izan digun arren, ez gaituzte errespetatzen. Urratuenak, jazarrienak eta baztertuak izaten jarraitzen dugu. Estatuako krimenen biktimen kasuan, MOVICE taldeko %90 emakumeak gara, gure senarrak, semeak, bikotekideak... hil edo desagerrarazi baitituzte eta inork ez baitu haiengatik erantzun nahi. Estatuari erantzule egitea eskatzen diogu. Biktimizazio horretan, sexu erasoak jasan dituzten kideak ditugu», azaldu du Hachek.

Luz Marina Monzon ere kolonbiarra da. Giza eskubideen aldeko abokatua da. Memoria-prozesuak babestu ditu. Kolonbiako Memoria Historikoa-

ren Zentro Nazionalaren «Justiziarako eskubidea, ez errepikapenaren berme gisa» ikerketa txostena koordinatu zuen. 2017ko irailean, Habanako bake akordioaren ostean sortutako Desagertutako Pertsonak Bilatzeko Unitatearen (DBEA) lehen zuzendari izendatu zuten. Kargu horretan aritu zen 2018 eta 2023 artean. Egun, Senatu kolonbiarraren aholkulari lanetan dabil.

«Nire kideek esan dutenari ondorengoa erantsiko nioke. Gerrari aurre egiteko emakumeek eraiki duten lidergoa zigortu nahi dute; horregatik, emakumeek eraso eta mehatxuen jo puntuan gaude. Seme-alabak errekrutatzearekin eta desplazamenduarekin mehatxatzen gaituzte», adierazi du Luzek.

Hala ere, «indarkeria horren erdian», emakumeek «bake akordioak gidatu eta bultzatu» dituztela eta «bakea eraikitzeko bidea irekitzen» ari direla ere nabarmendu du Monzonek. «Indarkeria handia da, baina bizi-baldintza hobeen alde egiten duten emakumeen ausardia eta erresistentzia ere handia da», azpimarratu du.

Constanza Ramirez kolonbiarra Otras Voces elkartearen komunikazio arloko arduraduna da. Francia Marquez presidente ordearen Kolonbian emakumeek jasaten duten bazterketaren sinbolo dela dio. «Kargu horretan dagoen lehenengo emakumea da, afro-amerikarren ondorengoa, beltza. Berdintasunaren eta Emakumearen Ministerioa sortu du, baina Kongresuak bere funtzionamendua sabotatu du eta ez du ahalmenik izan Ministerioa garatzeko».

«Marquezek berak bazterketa, diskriminazioa, ahanztura eta mehatxuak pairatu ditu. Presidente ordearen izan arren,

ezin du bere jaioterrira joan mehatxatuta dagoelako. Duela gutxi bere aitaren kontrako atentatu bat egin zuten».

Hacheren antzera, Petroren garaipenak piztu zuen itxaropena aipatzen du. Lehen aldia baitzen Kolonbiako demokrazian ezkerrek eta gerrillari ohi batek hauteskundeak irabazten zituela. «Ez dugu inoiz diktadura militarrik izan, baina horren beharrik ez delako izan. Diktadura militar baten orde, Segurtasun Estatutua izan dugu eta horren babespean militarrek gobernatu dute. Eskubideak aitortu badizkigute ere, praktikan ezin ditugu egikaritu, eskubideak paper hutsean gelditzen dira».

FRANCIA MARQUEZEN IZENDAPENA

Ramirezen hitzetan, Marquezen «izendapena inklusioaren itxaropenarekin hartu genuen. Itxaropen bat da, baina praktikan erabateko diskriminazioa eta blokeoa ikusten dugu. Gurea bezalako herrialde desberdin batean, oposizioak uste du ez dela Emakumearen eta Berdintasunaren Ministeriorik egon behar».

Monzontzat, «Marquezek Kolonbian ukatu eta baztertu diren gauza asko ordezkatzeko dituzte. Emakumea, afroa, umila, ingurumenaren defendatzailea... da. Hori guztia da gatazkaren oinarria. Franciak hori dena ordezkatzeko du. Gu guztiok ordezkatzeko gaitu, aldaketaren agendaren itxaropena sinbolizatzen du».

RIGOBERTA MENCHU, SINBOLOA

Dora Miron Guatemalako gizarte langilea Rigoberta Menchuren idazkari pertsonala izan zen 2000ra arte. Aita, ama, senarra eta aitaginareba desagertuta ditu. 1976az geroztik, Guatemalako landa-ere-

muko emakume indigenei eta ez-indigenei laguntza humanitarioa, soziala eta politikoa eskaintzen die. 1982tik 1995era erbestean bizi izan zen.

«Herri indigenen eta emakumeen borroka ordezkatzeko Rigoberta Menchuk, ez soilik Guatemalan, baita Latinoamerikan ere. Bere izena daraman fundazioak hezkuntza, bakerako kultura... lantzen eta sustatzen laguntzen du», dio. Puntu honi buruz, ondorengo dio Sonia Elizabeth Morenok: «Bakearen Nobel sarirako kanpainak eta fundazioaren lanak Guatemalako gatazka armatuaren eta genozidioaren izaera jarri ditu mahai gainean. Gure herrialdeetan egon diren gatazken muinean arrazakeriaren aurkako borroka dago. Gure estatuak erabat arrazistak, diskriminatzaileak eta baztertzailak dira, batez ere jatorrizko herriekiko, baina baita establishment-ak ezartzen dituen irizpideak betetzen ez dituzten gizarteko sektoreekiko ere. Jatorrizko herriek, emakume pobreek, beltzek... indarkeria sistematikoa bizi izan dute historikoki».

«Elkarrizketa honetan parte hartzen ari garen emakumeok biolentzia politikoa desagertzea nahi dugu. Biolentzia politikoa genero indarkeriarekin nahaspilatzen da. Emakume indigena bati, Francia Marquezen kasuan bezala, bere lidergoa gauzatzea gaitik, gizarteak ezartzen dizkion kostu emozionalak, afektiboak eta familiarrak handiak dira. Guk guztiok egunero aurre egiten diegu kostu eta indarkeria horiei. Lurraren, lurraldearen, ingurumenaren, memoria historikoaren eta epaiketaren alde egiteak eta desagertuak bilatzearen alde borrokatzeak kostu afektiboa, emozionala eta ekonomikoa eragiten digu emaku-

meoi. Gizonen eta emakumeen lidergoak desberdin ikusten dituzte gizarteak. Kriminalizatuak eta judizializatuak dira eta espetxean daude horietako asko. Espetxealdia ere desberdin bizi dute gizon eta emakume liderrak», gogoratu du.

Yeni Jiron salvadortarra Sutchitot bizi da eta Concertako emakumeen kooperatibarekin egiten du lan. Bi urterekin militarren operatibo batean galduta zen, soldaduek eraman zuten eta umezurtzentzako leku batean utzi zuten. Pertsona ezagun batzuek aurkitu zuten, baina geroago umezurtzen eta/edo gerrillarien seme-alaben beste zentro batera eraman zuten. Gaztetan amarekin eta familiarekin harremana berreskuratzea lortu zuen.

Emakumeen zaugarritasuna nabarmentzen du Jironek. Rigoberta Menchuren ondarea oso garrantzitsutzat jotzen du, hura jaso eta patriarkatuaren kontra borrokatzen jarraitzeko beharra azpimarratzen ditu. «Genero-arrakala gutxitzeko eta guztiontzako genero berdintasuna aldarrikatzeko antolatzen ari gara. Latinoamerikaren mapa politikoari erreparatzen badiogu, agintari gehienak, salbuespenak salbuespen, gizonezkoak dira. Emakumeak ikusezin bihurtzen gaituzte».

NAJIB BUKELEREN POLITIKAK

El Salvadorko egungo egoeraz eta Najib Bukelen agintaldiari buruz galdetuta, Morena Herrerak argi du: «Bukelerena eredu zigortzailea eta autoritarioa da. El Salvadorren erakitzen ari ginen demokrazia hauskorra suntsitzeko borondatea du. Hilketak gelditzearen aitzakiapean justifikatu du bere segurtasun eredu. Politika zigortzaile horrek hilketen kopurua jaistea lortu du, baina

ez guztiak. Aurten, gutxienez, 27 feminizidio gertatu dira El Salvadorren, baina Estatuak bakarrik onartu du. Emakumeen aurkako indarkeriak ez du baliorik Gobernuarentzat».

Bere hitzetan, «informazio eta komunikazio aparatua bikaina du; Latinoamerikak dituen segurtasun-gabezia arazoak konpontzeko eredu hori dela etengabe errepikatzen du. Baina Bukeleren ereduak ez ditu ez herritarren eskubideak ez eskubide konstituzionalak bermatzen. Ez dago adierazpen askatasunik. Botereen banaketa paper bustian gelditu da, aparatua judizial osoa kontrolatzen baitu».

Jeny Jironek hitza hartzen du: «El Salvadorren ez dago inolako bermerik. Bukelek ez ditu giza eskubideen aldeko ekintzaileak, gatazka armatua bera, memoria historikoa, pobrezia edo feminizidioak aitortzen. Inor gutxi doa komunitateetara, periferiarra... bertako errealitatea lehen eskutik ezagutzera eta Bukeleren sistemak haiengan duen eragina ikertzeraz».

«Ez dugu askatasunik: meatzaritzaren, berotze globalaren, kutsaduraren ... aurka borrokatzeko eskubidea ukatzen digute. Zaugarritasun handian bizi gara. Erakundeok estrategiak bilatu behar ditugu geure burua antolatzeko eta ahotsa altxatzeko, ez gara isilik geratu

Sonia Elizabeth Moreno: «Guatemalan, Historia Argitzeko Batzordearen eta Eliza katolikoaren txostenetan bortxaketak aipatzen badira ere, ez dira gerra arma gisa identifikatzen»

«Erakundeok estrategiak bilatu behar ditugu geure burua antolatzeko eta gure ahotsa altxatzeko. Ez gara isilik geratu behar», nabarmendu du El Salvadorko Jeny Jironek



Ezkerretik hasita, Luz Marina Hache, Luz Marina Mozon, Constanza Ramirez, Jeny Jiron, Dora Miron eta Sonia Elizabeth Moreno, elkarrizketaren momentu batean.

Andoni CANELLADA / FOKU



behar. Gure komunitateetan eta udalerrietan antolatu behar gara. Ez dugu beldurrik erakutsi behar munstro honen aurrean», dio Jironen.

El Salvadoroko Gobernuak indarrean jarri duen lege baten arabera, atxilotutako norbait presoaldi prebentiboan espetxeratu dezakete leporatzen dioten delituaren gehienezko zigorraren erdiagatik.

«Abortuagatik eta larrialdi obstetrikogatik preso dauden emakumeak, adibidez, 30 eta 40 urte bitarteko zigorra jaso dezakete; beraz, lege honen 15 edo 20 urte arte egon daitezke kartzelan epaiketarik gabe. Horixe da Gobernuak egiten ari dena, baina ez da publiko egiten», ohartarazi du Morena Herrerak.

Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikarrean (GEAI) «Beatriz auziagatik» prozedura judicial bat hasi zuten hainbat giza eskubideen aldeko elkarrek eta abokatuk, tartean Morena Herrerak. Nahiz eta gai-

xotasun sendaezina eta larria pairatu eta fetua bizitzarekin bateragarria ez izan, entzefalorik gabekoa zelako, haurdunaldiarekin jarraitzea behartu zuen Estatuak. Jaio eta bost ordutara hil zen Beatriz alaba.

«San Josen, Costa Rican, Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikarraren egoitzan, botere-talde horiek pankarta handiak zabaldu berri ditu Beatrizen auziaz arduratzen diren epaileei abortuaren industriari ez erortzeko eskatuz. Talde horiek defentsa legala ordaindu diote Estatuari. Nola ezin duten kasua irabazi, giza eskubideen urraketak egon zirela erakusten dugulako, xantaiaren, presioaren eta Gortearantzako izen txarraren bidetik irabazi nahi dute», salatu du Herrerak.

GATAZKAREN ERAGINA HAURRENGAN

Gatazka armatuek haurrengan eta gazteengan duten eragina mahai gainean jarri nahi dute. Luz Marina Hache da lehena: «Gizarte kolonbiarra gaixorik

«Gatazka armatuaren jarraipenak etorkizunerako aukerak ukatzen dizkie gazteei. Desplazamendu handia sortzen duelako; gatazkaren aktoreek lurraldearen boterea hartzen dute, eta gazteek testuinguru horretan ez dute inolako aukerarik»

dago. 60 urte baino gehiagoan biolentzia politikoa pairatu dugu. Umeei gatazkak beraien artean konpontzea eskatzen zaie eta oso ohikoa da horretarako biolentzia erabiltzea. Kolonbian bizitzak ez du baliorik. Desberdin pentsatzeagatik hiltzen zaituzte, mila peso kentzearren hiltzen zaituzte, mila peso ez edukitzeagatik hiltzen zaituzte... Giza baloreak aldatzen saiatu behar gara, baina tamalez gurea kultura biolentzia da. Egunero ikusten ditugu horren adibideak zoritxarrez».

2021. urtean gazteen protestak bortizki erreprimitu zituztela gogoratu du. «Lan, osasun eta hezkuntza eskubideak besterik ez zituzten aldarrikatzen. Errepresioa eremu guztietan hedatu zen. Eta nola erantzun zuen gazteriak? Ba armen eta biolentziaren bidez, zeren ez zuten bestelako aterabiderik. Belaunaldi hau eta hurrengoaren hurrengoak ere pasa beharko dira, beste balore batzuk izango dituen gizarte bat eraikitzeko. Bizitza da daukagun gauzarik sakratuena eta, hala ere, gutxien axola zaiguna. Beste bati bizitza kentzeak ez du inporta. Nola liteke hamalau urteko mutiko bat hiltzea anana bat hartu duelako? Hori ulertezina da Ez dugu lortu hitz egitera eseriko den gizarte bat eraikitzea; horregatik, gure aldarrikapenetako bat da desberdin pentsatzeak ez gaitzala hil».

Guatemalari buruz, Dora Mironek gizarte oso «konfrontatuta» dagoela dio, «bizi izan dugun gatazka izugarri eta irrazionalaren ondorio gisa. Horrek ez digu aurrerapausorik ematen uzten. Eta haurtzaroaren kasuan, maren atzaparretan erortzen dira asko. Edozer gauzagatik norbait hiltzeko prest dauden gazte-

txoak dira. Horri neskatoen kontrako biolentzia gehitu behar diogu. Gerora hilik agertzen diren 13 urteko neskek bahitzen ari dira Guatemalan. Eta hor ez dago klase sozialik, denei eragiten ari die eta. Biolentzia arazo larria dugu»

«Gatazka armatu baten ondorioak askotarikoak eta anitzak dira. Kolonbiaren kasuan, gainera, ez da amaitu». Luz Marina Hachek aipatu du 60 urte baino gehiago daramatzatela gerran. «Kontua ez da behin bakea sinatuta gatazkarik ez dagoela. Orain beste modalitate batzuk daude. Gatazka armatu batek desitxuratu egiten ditu bizitza, errespetua eta duintasuna lehenesten dituzten balioak eraikitzeko oinarriak. Gatazkak irauten duen bitartean, bizitzak ez du baliorik eta arrakasta besteen gaitetik pasatuz lortzen delako ideia gailentzen da», gaineratu du Luz Marina Monzonek.

«Gatazka armatuaren jarraipenak etorkizunerako aukerak ukatzen dizkie gazteei. Desplazamendu handia sortzen duelako; gatazkaren aktoreek lurraldearen boterea hartzen dute, eta gazteek testuinguru horretan ez dute inolako aukerarik. Edo soldata bat ematen dieten horiekin hasten dira lanean, edo are aukera gutxiago dituzten hiriguneetara joan behar izaten dute. Hori erronka handia da Kolonbian itxaropena eta bakea eraikitzearekin amesten dugunontzat».

Honen harira, Sonia Elizabeth Morenok hausnarketa kritiko bat egin du. «Orain arte Egiaren Batzordeek ez dute aintzat hartu gatazka armatuek haurrengan duten eragina. Fokua ez da haiengan ipini inoiz. Gerra garaian umeak zirenen eta egun helduak diren pertsona horiengan ez da

inoiz fokua jarri. Komunitateetan, emakumeengan, lekualdatzeetan, desagertze behartuetan izan dituen eraginak ikertu ditugu, baina oso ikerketa gutxi daude gatazka armatuak militanteen, gerrillarien, liderren... seme-alabengan izan zituen ondorio eta kalteei buruz. Egun, ume horiek ama eta aita dira. Agian, familian edo bakarka, eragin horiei heldu zaie, baina gizarte gisa ez da egin eta egiteke dago oraindik».

«Hemen gauden guztion herrialdeetan gerra garaian galdutako, lapurtutako edo adopzioan emandako haurren bila dauden elkarteak ditugu. Orain jada helduak dira haur horiek. Zer bizi izan zuten gure seme-alabek gu gure militantziagatik haien ondoan ez geundenean? Agian gure seme-alabekin hitz egin dugu, baina geure buruarekin eta osatze prozesuekin kritiko bagara, gizarte bezala gabezia hori aitortu behar dugu».

Dora Mironek migrazioaren fenomenoari erreparatzen dio. «Haurrak bakarrik doaz, 'coyote'-ari ordainduta. Eta narkoak haurrak errekrutatzen ditu».

El Salvadorko egoerari dagokionez, Morena Herrerak haurdunaldi goiztiarra aipatzen du. «Bortxaketen ondorioz haurdun gelditzen diren 9 urteko neskatok ditugu. Ikerketen arabera, Latinoamerikan hiru emakumetik batek bortxaketa bat jasaten du bere bizitzan. El Salvadorren, hiru emakumetik bik nolabaiteko sexu biolentzia pairatzen du. Kasu batzuetan, bortxaketa horien ondorioz haurdun gelditzen dira neskatok. Estatuak haurdunaldiarekin jarraitzea soilik eskaintzen die».

«Eta baldintza prekarioetan. Haien etorkizuna zapuztuta



geratzen da, jada ezin dutelako ikasten jarraitu. Haurdunaldi horretaraino iritsi dira neskato horren ametsak eta itxaropenak. Haur horrek beste haurtxo bat zaindu behar du eta ez Estatuak ez inork ez du gero ama bihurtu den neskato hori zaintzen. Horrek pobrezia gehiago, zaurgarritasun gehiago, frustrazio gehiago eta giza eskubideen urraketa gehiago eragiten ditu», gaineratu Yeni Jironek.

Constanza Ramirezentzat «gizarte bat ez bada izutzen bere haurrei hori gertatzen zaielako, gizarte hori oso gaitxo dagoenaren seinale da».

Testuinguru ezkor horretan, «emakumeok esperantza eraiten dugu mundu desberdin bat utzi behar dugula pentsatzen dugulako. Gure seme-alabei, bilobei... gizatasun gizatiarragoa utzi behar diegu. Beste giza balio batzuk eraiki behar ditugu. Hau da dugun etxe bakarra. Ezin diogu itxaropenari uko egin egoera txarra bada ere», dio Luz Marina Hachek.

ERRESILIENTZIAREN ESANAHIA

Erresilientzia hitzari buruz galdetuta, lehena erantzuten Constanza Ramirez da. «Niretzat gehiegi erabiltzen den kontzeptu bat da. Edukia galdu du. Errekuperazio hitza

«Egiaren Batzordeek ez dute aintzat hartu gatazka armatuak haurrengan izan duten eragina. Oso ikerketa gutxi daude gatazka armatuak militanteen, gerrillarien, liderren... seme-alabengan izan zituen ondorio eta kalteei buruz»



nahiago dut. Elkartean badugu lan plan bat, emakume zaintzaileak barne hartzen dituen, historikoki emakumeak izan direlako familietan zaintza lanak egin dituztenak. Belaunaldien arteko elkarriketa horietan oina zeak eta beldurrak azalertzzen dira».

Luz Marina Monzonentzat, erresilientzia «erresistentzia prozesu bat da. «Zoritxararen eta indarkeriaren aurkako erresistentzia gisa ikusten dut. Esan bezala, bizitzaren eta gizateriaren aldeko apustua da niretzat. Gizatasunaz hitz egitea ez da nolana hiko gaia genozidio bat ikusten ari garen une honetan. Gizateriaren etapa honetan, uste genuenean honezkero ez genuela genozidio bat biziko, egunero ari gara Gazako genozidioa ikusten, eta hura eskalatzeko arriskua».

«Niretzat –gaineratzen du Yeni Jironek– borrokarako dei bat da erresilientzia. Elkartzeko eta isilik ez geratzeko beharra islatzen du».

Sonia Elizabeth Morenorenzatzat, «zaintza ama lurraren zaintzarekin hertsiki lotuta dago, izaki eta espezie guztiena, dela fauna, flora, harriak, lakuak, ibaiak, ura, leku sakratuak. Gizateria gisa beste izaki horiek zaintzen ez badi-

tugu, gure oreka eta bizitza hil egingo dira».

«Gizakiaren adimenaren eraldaketa bat da, eta iragane ko eta oraingo beste izaki horiekin duen harremana, borroka jarraitzea ahalbidetzen duena, eta hor ulertzen duzu herri indigenek beren lurraldeen defentsan egin duten borroka historiko eta etengabe hori. Erresilientzia kontzeptua motz gelditzen zait».

Luz Marina Hachek nabarmentzen duenez, hitz horrek «bestelako giza balio batzuk aldarrikatzen ditu. Biktima garenok ez dugu mendekurik nahi, ez dugu nahi mina egin zigun pertsona horri gure berdina gertatzerik. Elkartasuna, zaintza eta elkarri laguntzea lehenesten ditugu. Gure artean familia desberdin bat eraiki dugu. Estatuak behartutako desagerpenetan duen erantzukizuna bere gain hartzen ez duen bitartean, gure senideen desagerpenaren erantzulea nor izan zen ez dakigun bitartean... Nor barkatuko dugu? Norekin adiskidetuko gara? Ez dugu aukera hori. Egiarako eskubidea ukatzen bazaigu, adiskidetzea prozesu zaila da».

«Egiarik eta aitortpenik gabe ez dago adiskide prozesurik», diote guztiek aho batez solasaldia amaitu aurretik.



Mahmoud ISSAS | ZUMA PRESS | EUROPA PRESS

IKUSMIRA

GAZAKO IPARRALDEA, GENOZIDIOAREN AGERTOKI

Jabalia, Beit Hanoon eta Beit Lahiya genozidioaren eta ankerkeriaren erakusleho dira. Israelgo Armadak Gazako iparraldea setiatu zuen duela hiru aste. Ez dago ez urik, ez janaririk, ezta botikarik ere. Familiak harrapatuta daude, inolako ihesbiderik gabe. Aire eta lur erasoak etengabeak dira. Soldaduek ez diete erreskate taldeei zaurituengana eta hondakinen artean harrapatuta gelditu direnengana iristen uzten. Asteazkenean, Gai Humanitarioak Koordinatzeko Nazio Batuen Bulegoak jakinarazi zuenez, OMEk zuzendutako talde humanitario bat Kamal Adwan ospitalera iritsi zen gaixo kritikoak ebakutzeko. Israelek «elikagaiak, erregaia, odola eta sendagaiak eramateko egindako eskaera ukatu zuen». Hemeretzi egunetan, gutxienez 770 palestinar hil dituzte Gazako iparraldean. Al Jazeera kateak salatu duenez, kasu batzuetan soldaduek haurrak amengandik banatu eta mutilak eta gizon helduak atxilotuta eraman dituzte. «Abandonatuta sentitzen dira. Israelgo setio honen amaiera eskatzen dute. Esaten ari dira ezin dituztela seme-alabak elikatu, ezin dutela euren burua elikatu», nabarmendu du Hind Khoudary kazetariak Deir el-Balah-etik idatzitako kronikan. Ainar LERTXUNDI



Saioa AGINAKO LAMARAIN
Psikoterapeuta

Eskuragarritasun emozionala

Gustuko duzun norbait ezagutzen duzu, konektatzen ari zaretela dirudi, denbora partekatzen duzue, baina bat-batean atzera egiten du. Beldur

rrak zuzendua dirudi, edo zuzenean esaten dizu ez duela ezer seriorik nahi. Ez dagoela prest, kosta egiten zaiola irekitzea... Baliteke emozionalki eskuragarri ez dagoen pertsona baten aurrean egotea.

Bi kideak sintonia emozionalean daudenean, giro segurua eta konfiantzazkoa sortzen da, sentitzen dutena eta dituzten kezka askatasunez adierazteko; horrela sustatzen dira pertsonen arteko intimitatea eta lotura sakonak, eta horrek indartzen du harremana. Egia esan, bikote-harreman batek funtziona dezan, garrantzitsua da bi aldeek eman eta jasotzea; izan ere, bat bakarrik irekitzen bada emozionalki, hori ez da harreman bat. Beharrezkoa da bi aldeek beren barne-mundua irekitzea, intimitaterako eta partekatzeko espazio komun bat sortu ahal izateko.

Pertsonok konfiantza izan behar dugu gure loturen egonkortasunean.

Jakitea maite gaituztenek hala egiten jarraituko dutela, baita bertan ez badaude edo gatazkak eta desadostasunak sortzen badira ere. Ziurtasun horri iraunkortasun emozionala esaten zaio, eta horri buruzko defizita dugunean gure bizi-kalitatea eta ongizate psikologikoa oso murriztuta ikus ditzakegu. Emozioen iraunkor-

tasunik ezak segurtasunik gabe sentiarazten gaitu, etengabeko soka ahul batean. Antsietate-sentsazio handiak sortzen dizkigu, eta gure interesen aurka doazen portaera jakin batzuetara animatzen gaitu.

Komunikazio irekia, elkarrekiko errespetua eta kalteberatasunerako jarrera funtsezkoak dira harreman emozional osasungarria lantzeko eta mantentzeko. Emozionalki eskuragarri egoteak esan nahi du irekita egotea beste pertsona bat gure bizitzan sar dadin, afektua eman eta jaso nahi dugula eta besteekin intimitate-espazioak izateko gogoia dugula, elkarriketa intimoak, maitasuna, pasioa, aitortpenak eta abar trukatzeko.

Aitzitik, emozionalki eskuragarri ez dagoen pertsona bati guztiz kontrako gertatzen zaio: kosta egiten zaio besteekin intimitate-espazioak sortzea. Horrela, pertsona horrekin oso une dibertigarriak parteka ditzakegun arren, ez da benetako intimitaterako espazio bat sortzen. Kosta egiten zaio

laguntza eskatzea eta bere buruari laguntzen uztea. Kosta egiten zaio emozioak adieraztea, bihotza irekitzea. Harreman pertsonalak ere azalekoak dira, ez baita besteekin emozionalki inplikitzen. Hasieratik mugak ezartzen dituzten pertsonak dira. Adibidez, elkarrekin lo ez egitea, beste lagun batzuekin otordurik ez egitea, familia ez ezagutzea... Marra gorri horiek aukera ematen diete distantzia emozionala markatzeko eta intimitatea, konpromisoa eta, azken batean, harreman ororen zatirik emozionalena eskatzen duen guztitik "babesteko".


Halaber, komeni da bereiztea konpromisoaren beldurra eta konpromisoari uko egiteko aukera pertsonala.

Pertsona askok nahiago dute bakarrik egon, eta horregatik ez dute inolako beldurrik ezkututzen. Hala ere, beste batzuk trabatu egiten dituzte konpromiso batek ekar dezakeen usatezko askatasun faltak. Hala ere, gaia norbaitekin konprometitzeko beldurra bada, beldur horren atzean zer ezkututzen den aztertzeke unea da. Eta ez ahaztu harreman osasuntsu batek zure askatasun- eta independentzia-beharrak asetzen lagundu behar duela, harremanaren beraren zati gisa.

Izan gaitezen koherenteak eta zintzoak gure harreman pertsonaletan; izan ere, hori norberaren maitasunaren froga da, eta, gainera, zuk bilatzen duzun gauza bera bilatzen duten pertsonak erakarriko dituzu. •



Sintonia emozionalak giro segurua eta konfiantzazkoa sortzen du.
J. WACKERHAUSEN | GETTY IMAGES



GAUR8 *ireki gure leihoa*



Ariketa berezia egin dute Antzuolan, ezohikoa. 2023ko urtarriletik 2024ko apirilera, gogoeta prozesu parte-hartzailea jarri dute martxan. Horraino, normal. Gogoetak mahai gainean jarritako galderak egiten du berezi prozesua: zer-nolako hilerria nahiko zenuke 30 urte barru? Antzuolako herritarren ahotsa jaso du ariketak, eskolako haurretatik hasi eta eliza inguruan ibiltzen diren emakume helduetaraino. Tartean, nerabeak eta herriko hamaika eragile. Finean, herri oso bat eseri da borobilean eta hilerriari eta heriotzari buruz hausnartu, hitz egin eta partekatu du.

Antzuolako prozesua Hil Arte Bizi egitasmoko Nere Erkiaga tanatologoak piztu du. Herritarrek eta komunitateek heriotzaren gaia «naturaltasunez» bizitzea da egitasmoaren

HERRI GOGOETA

Nolako hilerria irudikatzen du Antzuolako herriak 30 urte barru?

📁 **JENDARTEA** / Amagoia MUJKA TELLERIA

Heriotza bizitzaren parte da, itzuri egin ezina. Hilerriak herritik aparte daude kokatuak, han nonbait, nolabait. Antzuolan herri mailako ariketa ausarta egin dute eta etorkizuneko hilerria marraztera eseri dira. Udalak, Herri Eskolak eta EHUko Parte hartuz Ikerketa Taldeak eutsi diote Nere Erkiaga tanatologoak jarritako erronkari.

erronka. Eta asmo horrekin hurbildu zen Erkiaga Antzuolara, beste herri askotara gerturatu den bezala. Lur emankorra topatu zuen bertan, parte hartzeko ohitura eta gogoia izan ohi duen herri bat. Eta horrela gerturatu zen Antzuolako Udalera eta Herri Eskolara. «Gogoeta parte-hartzailearen motorra izan dira»,

nabarmendu du Erkiagak. EHUko Parte Hartuz Ikerketa Taldea izan da mahaiaren beste hanka.

«Guk ez genion inoiz buelta erdia eman ez heriotzaren gaiari ez hilerriari. Proiektu honi esker gaiaz hausnartzeko aukera izan dugu. Heriotzarena eta hilerriarena denon gaia da. Eta Udalari badagokigu gai

horretan sakontzea. Hilerria hil ondorengo lekua bada, Udalaren egitekoa da hori egoki eta denon eskura ipintzea. Antzuolan kanposantua esaten diogu hilerriari, horrek daukan esanahiarekin. Finean, gizartea ikaragarri aldatu da eta hilerriak denok eroso egongo garen tokia izan behar du. Gogoeta honek aukera ematen digu pausoz pauso joan eta denon moduko hilerri bat egiteko etorkizunean, bai hildakoentzat bai bizirik gertzen direnentzat leku egoki bat», azaldu du Olatz Lezetak, Antzuolako alkateak.

Berez une honetan Antzuolako Udalak ez dauka proiekturik edo premiarik hilerriaren inguruan, epe motzean ez dauka aurreikusita esku hartzerik bertan. «Librean egindako gogoeta bat izan da, ez dago proiektu edo aurrekontu bati lotuta, eta hori aberatsa da oso», iritzi dio Erkiagak. Era berean, Udalak gogoeta parte-hartzailea onartu izana «ausardia ariketa bat» izan dela nabarmendu du. Hilerria herriaren parte eta Udalaren azpiegitura izanda ere, heriotzaren gaia erdigunean jarri eta adin guztietako herritarrek horretara batzea badelako ausarta.

Antzuolako Herri Eskola bidaide oso garrantzitsua izan da. Lehenagotik heriotzaren pedagogia txertatuta zuten eskolan eta hori lagungarri izan da horrelako prozesu batean parte hartzera animatzeko. Bertako irakaslea da Josune Jimenez. «Duela bi urte etorri zen Nere [Erkiaga] eskolara, bere proiektua proposatzera. Hemendik 30 urtera zer-nolako hilerria nahiko genukeen. Gure eskolan heriotza oso presente daukagu. Guk bizitzarekin lan egiten dugu eta, herio-

Goiko irudian, Olatz Lezeta Antzuolako alkatea ezkerrean, Nere Erkiaga tanatologoa erdian eta Herri Eskolako irakasle Josune Jimenez eskuin aldean, gogoeta parte-hartzailearen ondorioak aurkeztu ziren egunean. Jaizki FONTANEDA | FOKU

tza bizitzaren parte izanik, ezin dugu apartean utzi. Egunerokotasunean saiatzen gara heriotzari bere tokia ematen modu naturalean, suertatzen diren gertaeren inguruan. Eskolara ikasleek kaleko kontuak ekartzen dituzte, herrikoak. Eta garrantzitsua da eskolak gai horiei eustea, herri izaerari, komunitateari, eusteko. Eskola herri komunitatearen motorra dela uste dugu», hasi du azalpena. Hartara, herriko gogoeta parte-hartzailean sartzeko zalantzarik ez dute izan.

«Une horretan lau urteko gelan jaiotzaren gaia lantzen ari ziren eta ama batzuk gonbidatu zituzten jaiotzaren gaia lantzeko. Ama horietako batek aipatu zien irakasleei haur bat hil zitzaiela jaio aurretik eta beren etxean oso presente zegoela gai hori. Eta beren haurrak beharra zeukala hori eskolan partekatzen. Ama etorri zen gelara eta beren esperientzia partekatu zuten. Oso une ederra izan zen, gainontzeko haurrek beren esperientzia ekarri zuten; bati txakurra hil zitzaiola, besteak birramama galdu zuela, besteak amaren lagun bat... oso une emozionala eta polita izan zen. Eta oso garrantzitsua izan zen haurrentzat konturatzeari ez zitzaiela beraieki bakarrik gertatu, heriotza presente zegoela bere lagunaren bizitzetan ere. Hartara, talde egokia iruditu zitzaigun hilerriaren gaia lantzeko. Irteera bat egin genuen herriko hilerriara eta eskolara bueltan esperientzia landu genuen. Eta galderari erantzuten saiatu ginen; zuek zer-nolako hilerria nahi duzue?», azaldu du Jimenezek.

Bistan denez, adin eta alor ugariko herritarrek parte hartu dute gogoeta prozesuan, eta emaitza ederra izan da, bi-

dea bezainbeste. Erkiagaren hitzetan, «heriotzaren gaia tabu bat da eta hori gainditzeko lagungarri gertatu da prozesua. Frogatu dugu hitz egin daitekeela heriotzaren inguruan giro lasaian eta ez beti doluan edo dramatismoan».

PROZESUAN JASOTAKOAK

Ahots ugaritara egindako parte hartze prozesua izan da Antzuolakoa. Nabarmendutako ideiekin osatu du marrazkia Nere Erkiagak.

«Hilerrien funtzioa izan da prozesuan agertu den elementuetako bat. Berez gorpuzkiak eta errautsak bideratzeko lekuak dira. Praktikoak da hilerria. Baina prozesu guztian zehar behin eta berriz agertu da hilerriaren funtzio sinbolikoa. Eskolan bertan agertu zen funtzio hori haurrek: maite ditugun pertsonak omentzeko eta oroitzeko lekua. Hilda-

«Hildakoentzako tokia da, baina batez ere bizirik geratzen direnentzako tokia da, eta herriko zatia. Maitasun izugarria dago hilerrian, sinesmenak egon edo ez egon»

«Euskal Herrian emakumeak izan dira hildakoak zaindu dituztenak. Bizidunak eta hildakoak. Emakumeek zaindu behar izan dute etxea, bizidunena, eta hilerria, hildakoena»

koentzako tokia da, baina batez ere bizirik geratzen direnentzako tokia da, eta herriko zatia. Maitasun izugarria dago hilerrian, sinesmenak egon edo ez egon».

Antzuolako Herri Eskolako lau urteko haurrek bihotz handi bat jarri zuten ikasgelako atean eta beren hildakoen argazkiak kokatu zituzten bertan. «Etorkizuneko hilerria irudikatzeko orduan, lau urteko haurrek eskaera egin

dute: atean bihotz handi bat izan dezala».

Antzuolako Gaztelekuko 12-13 urteko gazteek ere parte hartu dute prozesuan. «Haiekin elkarrizketan, zaintzaren kontzeptua jarri zuten mahai gainean; hilerria zaintzeko norbait, hobiak zainduak egon daitezela. Zaintza praktikoari buruz ari ziren». Eta bitxia bada ere, elizaren inguruan lanean aritzen diren emakumeek ere kezka bera agertu zuten; norik zainduko ditu hilerriak etorkizunean?

«Euskal Herrian emakumeak izan dira hildakoak zaindu dituztenak. Bizidunak eta hildakoak, biak. Emakumeek zaindu behar izan dute etxea, bizidunena, eta hilerria, hildakoena. Gaur egungo elizako andreak, esperientziak eta jakituriaz beteta daudenak, zaintzaren inguruan kezkatuta daude. Zaintza praktikoak

Behean, Antzuolako parte hartze prozesuan jasotako zenbait une. Adin guztietako herritarrek hartu dute parte gogoeta kolektiboan.
Nere ERKIAGA



eta sinbolikoak kezkatzen ditu. Hilerrriak hutsak geratzen ari dira eta bisitan ere ez da inor joaten».

Kezkak kezka, etorkizuneko hilerrria irudikatzerakoan ideia garrantzitsua agertu da prozesuan: izaera publikoa, herritar guztientzat lekua. «Askok pentsatzen dute hilerrria Elizarena dela, baina ez, herriarena da. Hortik, itxura neutroa beharko du etorkizuneko hilerrriak. Eta izaera neutro hori naturak emango diola esan dute gehienek. Adostasun zabala izan da horretan; hilerrria izan dadila naturagune bat, parke bat, baina hilerrria dela ezkutatu gabe».

Berdintasuna eta aniztasuna zainduta. Tasun hori ere beharrezko ikusi diote antzuolarrrek etorkizuneko hilerrriari. «Hildakoen arteko elementu bereizgarririk gabe eta pertsonen heriotza ulertzeko dituzten modu guztiak errespetatuta». Hilerrria herri lurra da. Herritar guztientzat behar du tokia, bakoitzaren sinboloak eta agur esateko moduak errespetatuta. Horretarako bide eman beharko luke etorkizuneko hilerrriak.

Diafanoa izan dadila, ezkutuko lekuri gabekoa; koloretsua eta argitsua izan dadila; egoteko toki desberdinak izan ditzala –esertzeko, paseatzeko, jateko, iturri batekin...–; orain baino irisgarriagoa izan dadila eta, atea izan behar bada, oraingo esaldirik gabekoa izan dadila. Horiexek, prozesuan jasotako beste proposamen zenbait.

«Jasangarritasuna da agertu den beste elementu bat, hiru mailatan; ekonomikoa, ekologikoa eta zaintzaren aldekoa», esan du Erkiagak. Hilerrrian berdintasuna izan dadila ezagurri, pobreen eta aberatsen arteko bereizketarik gabe. Era

berean, hilerrriaren mantenu ekonomikoa jasangarria izan dadila, bai Udalarentzat bai herritarrentzat. Jasangarritasun ekologikoari dagokionez, izan dadila naturarekiko errespetuzkoa. Eta, hirugarrenik, zaintzaren aldetik jasangarria.

«Zaintza praktikoa dago alde batetik, hilobia zaintzea. Gaur egun hilobi asko abandonatuta daude, familiako kideak hil egin direlako edota inork ez duelako ardura hori hartzen. Prozesuan agertu den proposamena da hilerrriaren zaintza orokorraren barruan hobi guztien zaintza ere ziurta dadila. Horrela berdintasuna mantenduko da. Diseinuak berak erraztu dezala zaintza hori».

Etorkizuneko hilerrria irudikatzerakoan, zenbait zerbitzuren beharra nabarmendu da. Lurperatzea edo errautsak gordetzea, adibidez. «Bakarka izan daiteke, baina aukera egon dadila taldean egiteko ere –familiak, bikoteak, lagunak...–, eta anonimotasunean egiteko aukera ere agertu da», jaso du Erkiagak.

Errautsak zabaltzeko lekua eta heriotza perinatalerako gunea ere agertu dira zerbitzuen zerrendan. Baita agurrak egiteko lekua eta baliabideak ere. «Antzuolan eskolako patioa eskaintzen da agurretarako. Baina agian egokia litzaiteke toki beroago bat egotea».

SINESMEN GUZTIENTZAT TOKIA

Hilerrriak izan beharko lukeen giroa ere aztertu da parte hartze prozesuan, hilerrri biziaren eta barnatasuna zainduko duenaren arteko erdibide bat proposatuz. «Bertan egiten diren agurretan edozein musika eta bestelako elementuak izan daitezkeela ikusten den arren, orokorrean hilerrrian lasaitasuna eta isiltasuna zaintzea ego-



ki ikusten da. Finean, beti egongo da norbait doluan inguru horretan. Bizia izateak ez du zertan esan nahi zaratatsua izan behar denik. Haurrentzat eroso izan daiteke, baina lasai egoteko toki bat bezala, ez jolasleku zaratatsu bat».

Aniztasunaren ñabardurak zaintzen dituen berdintasuna beharko du etorkizuneko hilerrriak. Hori agertu da herritarren kezketan behin eta berriz. Hilerrrian tokia izan beharko dute sinesmen guztiek, baita sinesmenik ez dutenek ere.

«Hego Euskal Herrian erlijio katolikoa izan da nagusi eta hilerrriak elizaren barruan zeuden lehen. Bertan ezin ziren lurperatu kristauak ez ziren guztiak, ezta kristau 'txarrak' zirenak ere. XVIII. mendean izurrite ikaragarriak izan ziren eta horien kontrako arauak sortu zituzten. Udalei eskatu zieten hilerrriak herritik kanpo ateratzeko. Udalek egin zituzten hilerrriak, Elizatik aparte, herritik aparte. Baina herriak

«Hilerrria herri lurra da. Herritar guztientzat behar da, bakoitzaren sinboloak eta agur esateko moduak errespetatuta. Horretarako bide eman beharko luke hilerrriak»

«Diafanoa izan dadila, ezkutuko lekuri gabekoa; koloretsua eta argitsua; egoteko toki desberdinak izan ditzala eta orain baino irisgarriagoa izan dadila», jaso du prozesuak



eginak izan arren, Eliza katolikoaren luzapen bat ziren hilerriak, eta horrela funtzionatu izan dute. Hortik kanpo geratu izan dira hainbat herritar. Azken hamarkadatan herri batzuetan gauzak aldatzen joan dira; batzuetan bi hilerri egin dituzte, bat zibila eta bestea katolikoa; beste batzuetan estetika katolikoa dauka, baina denak sartzen dira... galdera da, nola kudeatuko dugu hori? Prozesu honetan garbi geratu da etorkizuneko hilerriak herritar denentzat tokia beharko duela».

Sinesmenen arabera, aniztasuna gero eta zabalagoa da, beraz. Batetik, heriotzaren ondoren ezer ez dagoela sinesten dutenak daude, eta asko dira.

«Hauek ez daukate elkarte bat Hego Euskal Herrian. Britainiarrek, adibidez, ateoaren elkarte bat daukate eta sekulako ahalgina egiten dute dena neutraltasunera ekartzeko. Hemen ez dago halakorik, baina ezertan sinesten ez duten herritar ugari daude. Eta gero badira erlijioan sinesten dutenak; katolikoak, musulmanak, juduak... Eta badira espiritualak ere, erlijiorik ez duten arren, hileta-errituak dituztenak», jaso du gogoeta prozesuak.

Antzuolarrek marraztu duten etorkizuneko hilerrian, ez da ikusten banatutako gunerik, hemen batzuk eta han besteak. «Lurra denentzat berdina da. Erlijio bakoitzaren errituak kontuan hartuta, aniztasunari ahalik eta toki gehien egitea izango da gako». Hala ere, kasu batzuetan sinesmen batzuetako ohiturak eta tokian tokiko arauak talka egingo dute eta erdibideko irtenbideak topatu beharko dira. «Adibidez, musulmanek gorpuak betiko lurperatuta izateko duten hileta-ohituraren kasuan, hori ez da posible hemen. Epeak ahalik eta gehien luzatu beharko dira eta bestelako aukerak topatu», jaso du prozesuak.

INFORMAZIO GARDENA

Etorkizuneko hilerriari begira, egungo panoramak dituen zuloak ere bistan geratu dira. Adibidez, «prozedurak eta tramitazioak errazak izatea eta erraz ulertzeko moduan idatzita jartzea», «informazio guztia bateratuta egotea» eta «informazio hori eskuragarri izatea, erraz aurkitzeko moduan». Puntu garrantzitsutzat jo ditu Antzuolako herriak gogoeta ariketa egin duenean. Aurrera begira, etxeko-lanak eginda dauzka Antzuolak.

Goiko irudian, Antzuolako hilerria, parean, urrutira, herria duela. Heriotzari eta hilerriari bizkar emanda bizi da egun jendartea. Nere ERKIAGA

PUBLIKOTASUNA, GARDENTASUNA ETA ARRETA

Etorkizuneko hilerria marrazteko ariketa egin dute Antzuolan, eta bidean, egungo egoerari zuloak geratu zaizkio bistan. Nere Erkiaga tanatologoaren hitzetan, «ahuldade egoera itzela daukagu. Herritar bezala ez dakigu nola funtzionatzen duten hilerriek, nola hileta enpresek... Eta doluan gaudenean, buruak ez du funtzionatzen. Erakundeetan ere ezezagutza sumatu dut. Udaletxeetara deituta sumatu dut agian langile batek gauza bat dakiela, baina ez dakiela bestea».

Aldaketa handiak gertatu dira azken urteotan. Erlijioen aniztasuna areagotu egin da, gorpuen erdiak baino gehiago erraustu eta hilerrietik kanpo botatzen dira, normalean parke, itsaso eta leku publikoetan. Hilerrietan mugimendu gutxi dago. Eta bisitariak ere, eskas. Hilerrien zaintza ez da ematen lehen bezala. «Herri askotan ez dago lurperatzeko aukerarik. Lekua dago, baina ezin lurperatu. Ez da eskaintzen zerbitzu hori udalerrri askotan. Nitxoak daude, praktikoagoak direlako. Baina non geratzen dira zaintza, maitasuna, sinbologia, ekologia?».

Hileta zerbitzuen kontzentrazio handia gertatu da, eta gertatzen ari da. Estatu espainolean, hileta zerbitzuen bost enpresak kontrolatzen dute alorraren %50. «Donostian enpresa bakarra dago. Eta erosten eta erosten ari dira. Hurrengo hamar urteetan gehiago erosiko dute. Hileta zerbitzuak ematen dituzten enpresa txikiak desagertzen ari dira, eta zaila daukate etorkizuna», esan du Erkiagak.

Tanatologoaren ustez, ezinbestekoa da «publikotasuna eta zerbitzuen kalitatea bermatzea. EAE mailan konpetentzia hori zaindu egin behar da. Udal mailan, 1996. urtera arte hileta zerbitzuak udalarenak ziren. Garai horretan, kasu gehienetan gorpuren prestaketa eta beila etxean egiten ziren. 1996. urtetik aurrera alorraren liberalizazioa gertatu zen, eta gaur egun heriotzaren inguruko zaintza gehienak enpresa pribatuen esku daude. Udalak hilerriekin bakarrik geratu ziren, baina eskumen handia daukate hileta zerbitzuak arautzeko, nahiz askotan ez den erabiltzen eskumen hori». Hartara, oso interesgarria ikusten du «errauste zerbitzu komunitarioak eta publikoak martxan jartzea. Mankomunitate mailan, adibidez». Bide berean, tanatorio eta beilatoki publikoen alde egiten du Erkiagak. «Herrian toki publiko bat prestatu beila egiteko eta enpresa desberdinei aukera eman hori erabiltzeko, herritarrek dituzten beharren arabera».

Gardentasuna ziurtatzea, toki bakarrean informazio osoa eta argia biltzea. Udalean erreferentziazko langile bat izatea, «hileta zerbitzuen inguruko informazio osoa izango duena eta arreta emango diona heriotza bizitzen ari denari». Eta Udalean agurrak egiteko pertsona bat egotea, ezkontza zibilak egiteko dagoen bezala. Horiek, ikusi duenetik Nere Erkiagak mahai gainean jarritako zenbait proposamen.



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



Gero eta herri gehiagotan antolatzen da Gau Beltza. Jaia indar handiz eta abiadan ari da zabaltzen azken urteotan. Dagoeneko 2017. urtean, gertatzen ari zena gainean jarri zuten fokua Josu Ozaita eta Jaime Altuna antropologoek eta ikerketa etnografiko bat abiatu zuten. Orduan herri gutxi batzuetan ospatzen zen Gau Beltza. Geroztik, gero eta bazter gehiagotara zabaltzen ari da.

«Ikusten genuen urriaren 31 eta azaroaren 1aren bueltan mugimenduak gertatzen ari zirela. Haurrak ginenean hilerria joaten ginen Santu Guztien Egunean loreak jartzera. Erritu kristau bat zegoen hor, familiarekin elkartu, bazkaldu, hildakoak gogoratu. Hori desagertu egin zen, bat-batean ez zegoen. Bitartean, ikusten genuen Halloween ari zela zabaltzen kaleetan. Eta beste mugimendu bat ere bazegoen; gure aitona-amonek kontatzen zuten ume garaian kalabazak hustu eta bide bazterrean uzten zituztela, barruan kandelak jarrita, jendea beldurtzeko. Bihurrikeria bat zela kontatzen ziguten, umeen gauzak», hasi du azalpena Ozaitak. «Oso osagai bereziak zituen fenomeno bat ari zen gertatzen; umeak ari ziren ospatzen, beren kontura, aurretik ezer antolatu gabe... Ikerketan hurrekin egon ginen, beren ahotsa eta iritzia jasotzeko. Eta adinekoekin ere egon ginen, haiek haurrak zirenean zer eta nola ospatzen zuten jakiteko».

Ikerketa horretan zenbait elementu agertu ziren mahai gainera. Urriaren 31n, azaroaren batean eta azaroaren bian,



Haurrak Gau Beltza ospatzen Itsasun, 2023ko urriaren 31n. Guillaume FAUVEAU

OHITURAK BERRITU

Lehengo errituak gaurko haurren plazetara ekartzen ari da Gau Beltza

ERRITUAK / Amagoia MUJKA TELLERIA

Gure aitona-amonek ez zuten Halloweenen distirako Gau Beltzik ospatzen. Baina arimak gerturatzen ziren egunean, bihurrikeriak egiten zituzten kalabazekin. Gaztainak elkarrekin jateak komunitatea josten du; iluntasuna jolaserako plaza ederra da eta puska biltzea, herria egitea. Badira nahikoa oinarri erritu berriak eraikitzeko.

arimak etortzen omen ziren bisitan euskal bazterretara. Etxeko denak aztoratzen zituzten bisitariak, helduek jatekoa eta edatekoa prestatzen zuten, hilerriak txukuntzen, hildakoak oroitzen. Haurrek, heriotzaren inguruko ikarazko ke horretan, bihurrikeriak egiten zituzten. Sasoikoak ziren kalabazak lapurtu, hustu, piztutako kandelak jarri barruan eta bide bazterretan uzten zituzten, iluntasunean bideak ibiltzen zituztenak xaxatzeko. Eta orduko iluntasunak ez zeukan gaurkoaren antzik. Euskal Herriko bazter askotan aparte zeuden baserrietako bideak benetan beltzak ziren, egiatan ilunak, eta ikaratzeko modukoak berez. Are gehiago arimak inguruan zebiltzanean eta kalabaza bihurriak bide bazterretan. Hori zen giroa.

Euskal Herriko jaiak bi garaitan bereiz daitezke: udako festak eta neguko festak. Josu Ozaita antropologoak azaldu-takoaren arabera, «udako festak kanpoan egiten dira, kanpoko jendea etortzen da herrira, harremanak sortzen dira barrutik kanpora. Neguko festak, aldiz, barrura begira-koak dira, herri horren festak, komunitatearenak».

Giro horretan egin izan da herri askotan puska biltzea edo eske erronda. Etxez etxe, baserri baserri, joaten dira herriko gazteak eta horietan emandakoa biltzen dute; jatekoa, dirua... denetarik. Eta gero, bildutakoa komunitatean partekatatu eta gozatzen dute.

Gaztainedu ere indar sinboliko garrantzitsua daukate. Neguko gozokiak dira eta Euskal Herrian gauza asko ospatu izan dira elkarrekin gaztainak jaten, komunitatean. «Gaztainak jatea arimak batzeko modu bat ere bazen. Danbolina-

ren inguruan bildu eta gaztainak jan komunitatean», azaldu du Ozaitak. Herri batzuetan beste erritu bat ere egiten dute, norberak bere beldurrak idatzi paper batean eta danbolinaren su horretan erre, pape-
rak eta beldurrak.

Ikerketan jasotako informazioa "Itzalitako kalabazaren berpiztea" liburuan jaso zuten Ozaitak eta Altunak. Horrez gain, Ozaitak berak "Gau Beltza" izeneko haurrentzako ipuina argitaratu zuen, «ikerketaren emaitza haurrei itzuli nahi genielako». Marrazkiak Joseba Larretxerenak dira.

OHITURAK GAURKOTZEA

Kalabazak bide bazterrean, puska biltzea, gaztainak komunitatean jatea, beldurrak sutan erretzea eta iluntasuna. Badira nahikoa adreilu ohitura bat eraikitzeke, berrinterpretatzeko. «Euskaldunok askotan gure ohiturak aspaldikoak direla justifikatzeko beharra daukagu, gu ere aspaldikoak garela frogatzeko bezala. Gure buruari askatasuna eman beharko genioke ohiturak moldatzeko, gaurkatzeko eta berriak sortzeko», iritzi dio Josu Ozaitak.


«Guk ikerketa honetan ikasi dugun gauzetako bat da ohiturak bizirik daudela, une oro mugitzen eta moldatzen ari direla. Ohitura bat ez da fosil bat. Beti dago mugimenduan; jendarteak aldatzen da, eguraldia aldatzen da, antolatzaileak aldatzen dira... Tradizio batek beharrezkoa du mugimendua. Tradizio bat zerbait estatikoa bezala ulertzen baduzu, orduan sortzen da arazo; horrek tentsioak sortzen ditu edo ohitura desagertu egiten da. Eta, bigarrenik, ikerketan landa-lana egiten aritu ginean, herriz herri joaten gine-

«Euskaldunok gure ohiturak aspaldikoak direla justifikatzeko beharra daukagu. Gure buruari askatasuna eman beharko genioke ohiturak moldatzeko, gaurkatzeko eta berriak sortzeko»

«Ohitura bat ez da fosil bat. Beti dago mugimenduan; jendarteak aldatzen da, eguraldia aldatzen da, antolatzaileak aldatzen dira. Tradizio batek mugimendua behar du»

nean, asko errepikatzen zen ideia zen "berreskuratzen" ari ote ginen, gure aitona-amonek egiten zutena berreskuratzen edo. Duela hamarkada batzuk ez zegoen Gau Beltza izeneko festarik. Kalabazarekin jolasten ziren bihurrikeria moduan, baina errealitatea desberdina zen oso. Garai hartan umea izatea desberdina zen, eta baita jolasa bera ere. Horregatik, gehiago gustatzen zaigu esatea berrinterpretazio bat dela, berrasmartzeko bat. Euskal tradizioko

Behean, Josu Ozaita antropologoa. Azken urteotan zabaltzen ari den Gau Beltzaren inguruan ikerketa egin du. Gotzon ARANBURU | FOKU



elementu batzuk berrinterpretatu edo gaurkotu egiten ditugu. Erakargarriak izan nahi badugu, tradizio berriak asmatzea gauza ederra da, eta Gau Beltzak hori dauka, komunitatea biltzen duen festa ederra izan daiteke», jarraitu du antropologoa.

HERIOTZA ETA ERRITUAK

Santu Guztien Egunean Gau Beltzera, hor azpitik doan erreka baten oihartzuna sumatzen da: heriotza. Gure jendarteak gai tabu bihurtuta dago eta urte gutxitan aldaketa handia gertatu da heriotzari begiratzeko moduan.

«Ikerketa egin genuenean, adinekoekin eta haurrekin egon ginen. Heriotza bizitzeko bi modu oso desberdin identifikatu genituen. Adinekoek gogoratzen zuten lehen hildakoa bi egunez etxean egoten zela, hilkutxa etxean bertan, gela batean. Eta bertan egiten zela gaubeila. Fi-

nean, hildakoa etxean zaintzen zuten lagunek, senideek, bizilagunek... Baserrietan hildakoa izaten ziren, bide sakratuak. Hilkutxarekin bide hori egiten zen eta beti garbi egon behar zuen. Auzolanean zaintzen ziren bide horiek. Garbi eta txukun egon behar zuten hildakoa, inoiz ez zekitelako heriotza noiz etorriko zen. Prozesioa hildakoarekin kaleetan egiten zen. Kristau erlijioak errituak oso markatuak dauzka. Sekularizazioarekin, horrek bere indarra galdu du. Ez baduzu ezertan sinesten, erritu horiek zentzua galtzen dute», agertu du Ozaitak.

Haurrei ere galdetu zieten heriotzaz. «Erantzuna, isiltasuna. Gai tabua da gaur egun. Hildakoa ez da etxean egoten, beilatokian egoten da. Herriatik aparte daude beilatokiak. Gure bizitzatik atera nahi dugu heriotza, lehenbailehen amaitu nahi dugun tramitea da. Ez daude errituak antolatuta horren inguruan hori dena kudeatzeko».

Ozaitaren ustez, jendarte bezala gabezia bat daukagu. «Heriotza kudeatzeko erritu berriak sortu beharko genituzke. Mundu guztian dagoen kezka bat da. Heriotza hor dago eta gizarte guztiek kudeatu beharreko gaia da. Ez baduzu kudeatzen erritu bidez edo, min hori barruan geratzen da eta norbanakoaren arazo bihurtzen da. Erritu kolektiboak izatea garrantzitsua da. Dolua kudeatzen laguntzen du».

Erritu zaharrak baztertu egin dira, baina ez dira berriak sortu. «Heriotza indibidualki kudeatu beharrean sozialki kudeatzeak badauka bere garrantzia. Buelta bat eman beharko genioke. Errituek ez badute funtzionatzen, ken-

tzea ondo dago, baina berriak sortu behar dira, garrantzitsua da hori», nabarmendu du Ozaitak.

Garai bateko ohiturak dira, adibidez, ogia jartzea hildakoaren ondoan, beste mundurako bidaian zer jana izan dezan; leihoak irekita uztea lasai joan dadin; ispiluak tapatzea arima ez dadin bere islarekin ikaratu... «Kristau erlijioak baditu ohitura batzuk eta horietako asko aurretik zeudenak dira. Sinkretismoa esaten zaio horri. Ez dira kristau erlijioaren ohiturak berez, bereganatu egin ditu», dio Ozaitak.

OSPAKIZUNAREN JATORRIA

Santu Guztien Egunaren jatorria joanez gero, kristau erlijioak bere egindako jai baten zantzuak suma daitezke. «Jatorrian Samhain festa dago, zelta. Gehienak artzainak ziren. Udara mendian pasatzen zuten eta negurako herrira jaisten ziren, data hauen inguruan. Eta hor baziren trantsizioko hiru egun, udaratik negura pasatzeko hiru egun, eta horietan hildakoak oroitzen zituzten. Urriaren 31, azaroaren 1 eta 2. Hildakoek presentzia zeukaten egun horietan. Kristau Erlijioak VIII. mendean erabaki zuen Santu Guztien Eguna azaroaren leian jartzea».

Josu Ozaitaren ustez, garrantzitsua da jatorria ezagutzea eta berrinterpretatzea. Esaterako, Samhain festa irlandarrek eta ingelesak eraman zuten Amerikako Estatu Batuetara, bertara egindako migrazio olatuan. «Hasieran komunitateko festa bat zen, ingelesena eta irlandarrena, diasporako festa bat. XX. mende hasieran AEBetako Gobernuak erabaki zuen festa nazionala bihurtzea. AEBak

migrazio herrialde bat ziren eta komunitatea indartzeko eta herri bezala indartzeko beharra zeukaten. Horregatik erabaki zuen Halloween festa nazionala bihurtzea».

Behin Halloween festa nazional izendatuta, hori zabalatzeko makineria guztia jarri zuten martxan; eskolako curriculum, telebista, marrazki bizidunak, denetariko produktuak... Kapitalismoaren, kontsumismoaren eta globalizazioaren olatuan zabaldu da gerora mundu guztian, baita Euskal Herrian ere.

«Euskal Herriko toki askotan gertatzen ari dena fenomeno polita da. Berrinterpretazio bat gertatzen ari da. Gau Beltzak baditu haurrentzat erakargarriak diren ezaugarriak; iluntasuna, gaua, lagunartea, gozokiak edo gaztainak biltzea... Garrantzitsua da Gau Beltzean haurren ahotsa kontuan izatea. Beren iritzia

«Heriotza indibidualki kudeatu beharrean sozialki kudeatzeak badauka bere garrantzia. Errituek ez badute funtzionatzen, kentzea ondo dago, baina berriak sortu behar dira»

«Gau Beltzak baditu haurrentzat erakargarriak diren ezaugarriak; iluntasuna, gaua, lagunartea, gozokiak edo gaztainak biltzea... Haurren ahotsa kontuan izan behar da»

Gau Beltzaren dinamika gero eta herri gehiagotara zabaltzen ari da. Irudian, Itsasuko ospakizuna. Guillaume FAUVEAU

jasotzea, beraiek izatea antolatzen dutenak. Gau Beltzak hobeto funtzionatuko du haurrekin batera antolatzen bada», iritzi dio Ozaitak.

Bada beste tasun garrantzitsu bat: komunitatearen festa da. «Halloween talde txikietan ospatzen da. Baina Gau Beltzean komunitateak parte hartzen du, adin guztietako haurrek. Garrantzitsua da zentzu hori zaintzea».

Josu Ozaita Ibarrakoa da, baina Baliarrainen bizi da. Ber-

tan Gau Beltza antolatzen da azken urteotan, komunitateko festa ederra.

BALIARRAINGO ADIBIDEA

Baliarraingoa izan daiteke, beraz, Gau Beltza ospatzen duten herrien lagin bat. Plana, honakoa. Urriaren 31n, arratsaldeko 18.00 inguruan, plazan bildu. Danbolinean gaztainak erre eta elkarrekin jan. Paperean norbere beldurrak idatzi eta sutara bota. Kanpaiak jo, herriko farol guztiak itzali eta kalabazak jarri bide bazterrean. «Ilunduta dagoenean, kinkekin, kandlekin eta linternekin etxez etxe ibiltzen gara. Jatekoa biltzen da traktorean eta elkarrean jaten da bildutakoa taldean, komunitatean». Etxez etxeko puska biltzean, herriko haurrek erabakitako esaldia esaten da: «Txingili, txangili, txango. Gau beltza beltzago. Kalabazak argituko. Jana eman arte ez gara joango».





Luixa REIZABAL ARRUABARRENA

EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea eta UEUren psikologia kosailburua



Bullyingetik genozidiora: pasibotasunari buruzko gogoeta psikologikoa

Kezka eta mina sortzen dituen giza erantzuna da bidegabekeriaren aurreko pasibotasuna. Jarrera horrek arrasto sakon eta ilunak uzten ditu hura gertatzen den testuinguruan. Maiz ikusten ditugu ikastetxeetan, besteak beste bertan gertatzen diren bullying kasuetan, horrelako jarrerak. Mundu mailan ere ohikoa da hiritarrek nahiz herrialdeek pairatzen dituzten bidegabekeriaren aurrean ezikusiarena egitea, eta hori da, hain zuzen ere, egun Israel palestinarren aurka egiten ari den genozidioaren aurrean estatu gehienak izaten ari diren jarrera.

Eskolan gertatu ohi den bullyingak, erasotzailea eta biktima ez ezik, lekukoak inplikatzeko ditu. Izan ere, «ikusle» horiek funtsezko zeregina dute gehiegikeriaren zikloan. Ikerketa psikologikoez erakutsi dute behatzaileen pasibotasuna ez dela neutrala. Esku hartu gabe, modu inplizituan, gehiegikeria eta horrek sortutako sufrimendua baliozkotzeaz gainera, erasotzailearen jokabidea onargarria dela adierazten dute. Hurrengo biktima izateko beldurrak, enpatia ezak edo «erantzukizunaren difusioak» —hau da, ardurak banatuta ez dauden egoeretan, beste batek esku hartuko duela pentsatzeko joerak— eragin ohi dute jarrera pasibo hori.

Palestinarren genozidioaren testuinguruan, maila gorenean agertzen ari da pasibotasunaren logika hori. Izan ere, bullying kasuetan bezala, herritar, estatu eta agintari askok beste alde batera begiratzea erabaki dute, genozidioa etetearen ardura beste bate-na izango balitz bezala. Bitartean, Israeliek palestinarren holokaustoarekin jarraitzen du.

Pasibotasunaz gainera, ordea, konplizitatea dago. Izan ere, estatu askok ez dituzte erabiltzen sarraskia gelditzeko dituzten baliabide eta gaitasunak, eta jarrera horrekin genozidioaren laguntzaile bihurtzen dira. Hala, bullyingaren behatzaileekin gertatzen den moduan, egin eza ez da neutrala, sufrimendua aktiboki iraunarazten du-eta.

Ikerketa psikologikoen arabera, zenbat eta despertsonalizatuagoa izan sufrimendua, orduan eta errazagoa da ezikusiarena egitea. Bullyingean, erasotzaileak —bai eta «ikusleek» ere—, hari buruz gaizki hitz egin edo iraintzen duenean, despertsonalizatu egiten du biktima eta objektu bat bailitzan tratatzen du. Palestinarren sarraskian, berriz, «baja-kopuruaz» edo «albo-kalteei» buruz hitz egiten da, bakoitzaren atzean izen-abizenak, familia eta bizi-proiektu bat zituen pertsona bat, egongo ez balitz bezala.



Palestinako bandera EHUren Gipuzkoako campusean.
Luixa REIZABAL ARRUABARRENA

Eta biktima guztiak Hamas erakundearen kide nahiz laguntzaileak direla esaten da, haiek deshumanizatuz.

Ildo beretik, sarraski horren inguruan sortu den narratibak ere —zeinaren arabera, Europako Batasuneko 27 buruzagiek, aita santuak eta bestek esan zuten moduan, «Israeliek bere burua defendatzeko eskubidea» duen— Palestinako biktimen deshumanizazioa ekartzen du, eta horrek guztiak emozio-deskonexioa erraztu dezake eta pasibotasuna sustatu.

Horri guztiari beste aldagai bat gehitu behar diogu; behin eta berriz sufrimendu- edo indarkeria-irudiak jasotzen dituzten pertsonak —hala bullyingaren testuinguruan, nola palestinarren sarraskian— nolabaiteko emozio-sentiberatasunik eza gara dezakete, bereziki biktimei laguntzeko baliabide edo aukera argirik ikusten ez dutenean. Halakoetan, pertsonak nahiago izan dezakete deskonektatu eraginkortasunik gabeko sufrimendua pairatzea baino, hau da, pasibotasuna garatu dezakete larri-minetik babesteko.

Psikologiak erakutsi digu ondorio suntsitzaileak dituen erabakia dela bullyingaren, genozidioen eta antzeko bidegabekeriaren aurreko pasibotasuna. Ikastetxeetan nahiz nazioarteko testuinguruan ezer ez egitea erabakitzen dugun bakoitzean, erasotzaileari boterea ematen ari gatzakio. Bullyingak eta genozidioak lekuri ez duten etorkizun bat nahi badugu, daukagun erantzukizun indibiduala nahiz kolektiboa gure gain hartu eta ekin egin behar dugu. Baditugu, gainera, horretarako tresnak: enpatia, hezkuntza eta giza eskubideen defentsa, kasu. Esaera zaharrak dioten moduan, «ezina ekinez egina». Gure esku dago.

{ koaderno } **Xabier IZAGA**

Deskontua, luzamendua, merkealdia eta pagotxa

La reforma que permitirá descontar los años de cárcel cumplidos en Francia». «Maniobra legal». Azken aldi honetan irakurri eta entzun ditudan esaldi bi, beste hamaika gezur, mistifikazio eta purrustada artean. Amarrua, izatekotan, amarrua desegingo duena litzateke. Kartzelan emandako urteak bigarren aldiz ez betetzeko erreforma. Eta deskontatu, nola deskontatzen dira kartzela urteak bete ondoren? Bete baino lehen beharko luke deskontuak, nik uste.

Egingo nuke substantibo hori futbol munduko mordoilotik hartu dutela. Futbol partiduetako luzapenari «descuento» esaten diote gaztelaniaz, deskontua, eta ez dute esan nahi partidua luzeagoa izan arren sarreak merkeagoak direla.

Nonahi irakurri dut «reducción de penas» sintagma ere, eta aste honetan bertan, «murrizketarik ez da izango» entzun diot Beñat Uribe-Etxeberria Sareko ordezkariari NAIZ Irratiko elkarrizketa batean. Ez dela zigorrik etengo dio, baina zigorra ez dela luzatuko. Hain zuzen ere, luzapena etengo dute, Parot legea delakoa bertan behera utzi zutenean bezala.

Luzatu egin zieten presoiei zigorra, beharbada luzaketak, abdominalak eta bestelako ariketak egiteko denbora gehiago izan zezaten, eta luzapena etetea erabaki ondoren, luzamendutan jarraitu du eskuin espainiarrak. «Luzamendutan ibiltzea, egitekoak geroko uztea». Beste estatu batean betetako zigorren gaineko zuzentaraua 2008an zabaldu zuen Europako Batasunak, Gobernu espainolak 2014ra arte ez zion jaramonik egin, eta urte hartan euskal presoiei ez aplikatzeko amarrua egin zuen xedapen gehigarri –eta lotsagarri– baten bidez. Hamar urte geroago, eskuinaren luzamendu gehiago gorabehera, zuzentaraua indarrean jarriko dutela dirudi.

Arestian aipatutako elkarrizketan Sareko ordezkariak zioenez, zigorren batura bertan behera uztea urrats «baikorra baina berandu datorrena» dela uste du sare herritarrak. Baiki, oso berandu irisi da hainbat lagunentzat, zigorra luzatu dieten guztientzat, hain zuzen. Eskuinari, edonola ere, goizegi iruditu zitzaion, nonbait. Kongresuan erreforma onartu ondoren Senatuaren betoa ezartzeko asmoa bazuten (alferrik, agidanez), zergatik atzeratu zuten batzarra? Berriro ere luzamendutan.

«Luzamendutan ibiltzeak zenbat kalte egiten duen» eman zuen aditzera Axularrek “Gero” liburuko lehenbiziko partean. Espainiako gobernuen kasuan, baina, luzamendutan ibiltzeak ez die kalterik egin, kaltea besterena izan da, hainbat kartzela urteren kaltea.

«Luzamendutan ibiltzeak zenbat kalte egiten duen» azaldu zuen Axularrek. Espainiako gobernuen kasuan, baina, ez die kalterik eragin, kaltea besterena izan da, hainbat kartzela urteren kaltea

Luzamendutan ibiltzeak ez die kalterik eragin eta luzapena eteteak ondorio larriak ekarriko omen ditu: «La rebaja de penas a condenados por terrorismo, algunos de los cuales podrían salir de prisión cuando entre en vigor». Erreformak zigorren merkealdia ekarri du, nonbait, eta euskal preso batzuk kartzelatik irten ahal izango dira. Hori da pagotxa, kartzelara sartu eta hogeitaka urteren ostean, kalera! Beste batzuk sartu ere egin ez izanagatik ez dute inoiz arazorik izan, eta hauek bizitza erdia morroiloipe eman ostean ateratzea, eskandalagarria, berriketa mediatikoaren arabera. Zer dela-eta azalpenaren ordez gezurra? •

ZALDIALDIA

Zaldien lehen azokaren atarian, amets bat, zergatik ez euskal odolgarbi bat?

Zaldien sektoreak bere lehen azoka izango du bihar Zornotzan, Jaurregibarriako parkean. Hitzordu berezia da hainbat ikuspuntutatik begiratuta, hasteko oso ezaguna ez den mundu baten erakusleihen zabal bat izango delako. Antolatzaileek eurek nabarmendu dute azoka elkarre eta federazioen elkarlanean emaitza dela, profesionalen lana erakutsi eta balioan jartzeko. Arreta ematen dute deialdiak biltzen dituen beste berezitasun batzuek, zaldien hazkuntzak har ditzakeen bide ezberdinekin lotuta daudenak.

📁 **ABEREA** / Nerea GOTI

Bihar Zornotzan zaldi-hazleei eskainita estreinatuko den Zaldialdiaren bezperatan, arraza autoktonoen ondoan kirol zaldietan jarri duten azpimarrak jakin-mina piztuta, kuku bat egin du GAUR8k zaldien munduan. Ateak parez pare irekita dituen merkatu zabal bat marraztu dute kirol arloan, eta hori esploratzeko unea dela diote.

Euskal arraza autoktono ezagunen ondoan, esaterako, abere azoketan hain ohikoak izaten ez diren kirol zaldiak ere egongo dira, eta horrelako formatuko azoketan gutxitan ikusten diren zenbait erakus-

taldi eskainiko dituzte osagarri modura. Nazioarteko epaimahaikideek kirol zaldiei egingo dizkieten balorazio morfofuntzionalak edo pottoket burutuko dituzten erresistentzia oztoko jauziak dira ho-

ren adierazle. Zaldialdiaren estreinaldiak 120 animalia baino gehiago jarriko ditu ikusgai, «horietako asko salgai, eta horien artean haragitarako zaldiak, erresistentzia eta jauzi txapelketak irabazitakoak, pottokak, Enkarterriko astoak edota mendiko zaldiak».

Aldaketetako bat da hori. Orain arte zaldi hazleak nekazaritza eta abeltzaintzarekin lotutako azoka ugariaren parte izan badira ere, protagonista bakarrak izango dira bihar. Jauzi hori eman nahi izan dute antolatzaileek biharkoa bezalako azoka batekin, sektorearen erakusleihen espezia-



lizatu bat eskainiz eta fokua zaldiaren munduak aurrerantzean dituen aukeretan jarritz.

Deialdiaren bezperatan, sektorearengana jo du GAUR8k lehen azoka hori antolatzen eraman duten zergatiaz, helburuez, gogoez... hitz egiteko eta bizi duten egoeraren argazki zehatzago bat izateko. Izan ere, lehen begi-kolpean burura etor daitekeena baino askoz anitzagoa den eremu bat dela ondorioztatu dugu, eskema tradizionaletik harago joan nahi duen sektore bat, haragiaren ekoizpenaz aparte aukera lehi handiak ikusten dituen, batez ere kirol arloarekin lotuta. Amets bat ere agertu da: «Zergatik ez Euskal Herriko odolgarbi bat?»

Zornotzan bertan egin dugu hitzordua antolakuntzan eta mundu horretan diharduten Osertz Lejarreta eta Jon Alberdirekin. Bertan du bigarrenak zalditegia, Kati-Bi, orain semearen ardurapean dagoen ustiapena. Ibiltzeko zaldiak dituzte han, propioak gehienak, eta baita beste ugazaba batzuenak ere, zalditegian gorde eta zaintzen dituztenak. Zaldi gaineo ibilbideak eta ekitazio eskolak eskaintzen dituzte bertan, pottoken arrazaren lanketan dabilta aspalditik. Kirol zaldi-hazleen figuran zentratu dute mezua, eta jardura horrek izan dezakeen proiektzioa nabarmendu dute solaskide biek.

Elkarrizketatik ez oso urrun, istorio honen beste protagonista nagusiak daude begira. Hesiaren beste aldetik elkarrizketatuei adi begira jarri dira hurbilen dauden zaldiak, itxura ederrekoak, belarriak tente, haiek hizpide diren jakin eta solasaldia entzun nahiko balute bezala. Kamerari ere ez diote ihes egin, begi aurrean tramankulu beltz horre-



tatik begiratzen dien argazki-lariarengana gerturatu dira.

Azoka antolatzen helburuekin hasi dugu solasaldia. Osertz Lejarreta Zaldialdia azokako koordinatzailea da. Nabarmendu du euskal elkarre eta fundazio ezberdinak biltzeko eta lanerako dituzten arraza ezberdinetako zaldiak erakusteko baliatu nahi dutela hitzordua. Duela urte batzuk hasitako ibilbide baten barruko beharrezko urrats berri gisa definitzen du biharkoa.

Gogoratu duenez, 2016an sortu zuten kirol zaldien el-

Hazle ezberdinak batzeko eta sektoreko profesionalen lana ikusarazteko hitzordua izango da biharkoa, baita aurrean dauden aukera-leihoak erakusteko modu bat ere

Arraza autoktonoak babesteko urteetan egindako esfortzuaren ondoan, lehen sektorean duela gutxi sartu den kirol zaldien mundua ere egongo da Zaldialdian

Ondoko orrialdean, gazte bat zaldiz ibiltzen Zornotzako zalditegian. Lerro hauen gainean, Osertz Lejarreta eta Jon Alberdi, Zaldialdia lehen zaldi azokaren antolatzaileak, zalditegian bertan. Jaizki FONTANEDA | FOKU

karte. «Helburua zen lehen sektorean kirolerako zaldiak errekonozitu ahal izatea. Lorraren bitartez azterlan sakon bat egin genuen, haragitarako zaldiak edo Enkarterriko astoak dauden moduan kirol zaldiak ere egon zitezela, zeren apur bat aparte egon dira. Orain egiten duguna da denak batu eta errekonozitu hazle guztiak, nahi dutenak zaldi mundutik bizitzen hasi edo lehendik daudenak baina ezin izan dituztenak aukerak edo laguntzak erabili», dio.

Sektoreak duen pisu ekonomikoa ere nabarmendu du: «2022ko datuak hartuta, 8.500dik gora dira Araba, Bizkai eta Gipuzkoan dauden zaldi esplotazioak. Esplotazio bakoitzak bere zaldi motak ditu, eta guztien artean, 27.200 zaldi inguru dira. Zaldien munduak 40 milioi euro uzten du BPGan».

Zifren atzean, halere, sektore isil bat dagoela esan liteke, ezagunagoak diren arraza au-

toktonoen aldeko lanarekin alderatuta, behintzat. Errealitatea, berriz, aukera ugari eskaintzen dituen eremu zabal batetik gertuago dago, diotenaren arabera.

Hitz egiten hasi eta bistakoa da sektoreak duen izaera anitza da, azokan bertan ikus daitekeenez. Sektoreko profesional ezberdinen ordezkariak diren lau erakundek batu dituzte indarrak Zaldialdiaren lehen edizioa egia bilakatzeko: Euskal Herriko Kirol-Zaldi Elkartea (BCSH), EAEko hiru herrialdeetako elkarteak biltzen dituen Euskal Herriko Mendiko Zaldi Arrazaren Federazioa (EHMEZAFE), Euskal Herriko Mendiko Zaldia "Pottoka" (EPOFE) –Euskadiko Pottokazaleen Federazioa, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hazleen elkarteak biltzen dituen eta Enkarterriko Astoa arrazaren Hazleen Federazioa (ENAFE).

Arraza ezberdinak eta oso erabilera ezberdinak biltzen dituen sektorearen aurrean

gaude eta, hala ere, imajinatu baino askoz gehiago dute amankomunean. «Zaldi motak oso diferenteak dira, baina ez hazkuntzaren lehenengo fasean, animalia jaiotzen denean hurrengo pausoa eman arte, erabilera bat edo beste bat izan arte: kirolerako, haragitarako, paseoak egiteko... lehenengo lauzpabost urteak berdinak dira. Janaria, zaintza eta animalien ongizatearen aldean egin beharreko lana berdina da, nahiz eta gero, segun eta zertarako hazten duzun, zaldi bakoitzari irteera ezberdin bat emango zaion eta zaldi arraza zehatz batzuk erabiliko diren», zehaztu du Lejarretak.

INDARRAK BATZEAREN BEHARRA

Sektorearen erakustaldi handi bat sortzeaz gain, indarrak batzeak duen garrantzia azpimarratu dute: «Hori da lortu nahi duguna, bat egitea zaldien sektorean. Ez bagara elkartzen ez dugu ezer lortuko eta baditugu datuak erakusten dutenak momentu honetan zaldia oso inportantea dela Euskal Herrian», planteatu du Alberdik.

Orokorrean, jende gutxi dago zaldira bakarrik dedikatzen dena, baserri munduan beste animalia batzuen hazierarekin uztartuta baitaude zaldiak. Azken urteetan, zaldiak landak garbi mantentzeko mantendu dira neurri handi batean.

Lejarretak eta Alberdik dau den aukera ezberdinak jarri dituzte mahai gainean, sektoreak horretarako dituen indarguneak azpimarratuz. Diotenez, begirada aldatzea izan daiteke gakoetako bat, eta Euskal Herriak kirol zaldien hazierarako baldintza on ugari dituela adierazi dute, Britainia Handiak, Estatu frantsesak edo Belgikak erakusten duten jardueraren parean jartzeko

Kirolen mundurako hezitako zaldien hazkuntza jarduera dibertsifikatzeko bide bat izan daitekeela diote, esplotazio berean zaldi ezberdinen haziera uztartuz, adibidez

Kirol zaldien hazkuntzak sektorean agertoki berriak zabaltzen dituela nabarmendu dute Osertz Lejarreta eta Jon Alberdi hazle eta Zaldialdiaren antolatzaileek

modukoak, baina horiengandik urrun oraindik.

Azokako koordinatzaileak gogoratu du zaldien hasierako urteek behar duten haziera hori ardatz hartuta lortu zela jarduera lehen sektorean sartzea, eta hori duela gutxi izan zela. Berretsi duenez, berdinak dira baldintzak hazle guztientzat, beste gauza bat da lehen lauzpabost urte horietatik aurrera zaldiak izango duen aktibitatea. Adibidea jarri du: «Zaldiak ez dira hemen [zalditegia] hazten, beste leku batzuetan daude, mendian, baserrian..., libre. Zeren, gainera, ona da eurentzat libre egotea. Behin bezatua izan ondoren beste jarduera batzuk egiteko moduan egoten da animalia, baina hasiera berdina da». Gaineratu duenez, aukera leiho ezberdinak daude lan berberarekin: «Basoko zaldien hazkuntzaren xede nagusia haragitarako saltzea da; kirol zaldien kasuan, ordea, oso kirol ezberdinak izan daitezke».

Jarduera dibertsifikatzeko aukerarik baden galdetuta, argi diote posible dela, adibidez, arraza ezberdinak uztartzea. «Guk pottokak ditugu –jarri du adibide gisa Alberdik–, hemen jaioak, haziak eta heziak dira, eta pottokak ere sartu ahal dira kirol munduan. Hemen umeez zaldiz ibiltzen ikasten dutenean pottokekin

ikasten dute. Hasieran prozesu berdina jarraitzen dute; hazten dira basoan, landan... eta kirol zaldia izango bada, gobernatze on bat egon behar da, selekzioa egon behar da, izaera onekoa izatea kontuan hartzea... batez ere jendearekin ibili beharko duelako, kasu honetan jende gaztearekin».

Zornotzarraren iritziz, dibertsifikazioa berez sortuko da, eta esplotazio berean, «ale batzuk izango dira arraza gordetzeko, landak garbi mantentzeko..., eta beste batzuk kirol munduan aritzeko». Zaldialdiaren beste helburuetako bat aipatu du Lejarretak: «Aur bat demostratzea pottokak landak garbi mantentzeaz aparte kirolerako balioa ere baduela, ibilbideak egiteko, zaldi-turismoa egiteko..., eta esplotazio berdinean mota ezberdineko zaldiak egon daitezkeela, batzuk gauza baterako eta beste batzuk beste erabilera baterako, guztiz bateragarriak direnak».

KIROL EN MUNDUAREN AUKERAK

Zaldialdia azoka deitzeko, «etengabe hazten dabilen» sektore gisa aurkeztu dute zaldien hazierarekin lotutakoa, eta goranzko bilakaera hori batez ere kirol jarduerarekin lotuta dagoela aipatu dute. «Kirol zaldien barruan, kirol ezberdinak daude. Gure elkar-



tean erresistentzia lasterketarako zaldi hazleak daude, oso denbora mugatua kilometro asko egiten dituzten zaldiak, jausietarako zaldiak... eta horretarako, zaldi arraza ezberdinak daude. Gero, egon daitezke ibilbideak egiteko zaldiak, abiadura handiko zaldiak, hipodromokoak bezalakoak... diziplina asko daude kirolean, eta arraza ezberdinak», azpimarratu du.

Alberdiren ustez, aukera asko ditu Euskal Herriak, gainera, mundu horretan lehiakortasun handia erakusteko. Agertokia oso zabala da hazlearen esanetan. Kontuan izan behar da, dioenez, zer-nolako lana egin den behien munduan, Pirinioetako arrazare-

Kirol jardueran fokua jarrita, gogoeta bat bota dute: «Odolgarbi ingelesa zer da? Behor autoktonoa, arraza garbiko zaldi arabiarrez estalia. Hemen arraza autoktonoak ditugu»

Kalkulatu dute haragitarako direla animalien %90, baina diotenez, Euskal Herrian baldintza onak daude kirol zaldien merkatuan beste herrialde batzuen parean jartzeko



Irudian, Zornotzako Kati-Bi zalditegian dagoen zaldietako bat. Arraza ezberdinetako aleak biltzen ditu jarduerak, erabilera ezberdinak uztartuz.

Jaiizki FONTANEDA | FOKU

kin, adibidez. «Desagertzeko arriskuan egon zen arraza da, lan handia egin da azken hamarkadatan, eta arriskua ezabatzeaz gain lehiakorrak dira nazioartean. Zaldien munduan lan hori guztia falta da. Lortzen bada horrelako lan bat egitea, Europako beste edozein herrialderen parean jarri ahalko gara, zeren momentu honetan uste dut posibilitate handia dagoela, kontsumo handia dago kirol zaldien inguruan, gero eta jende gehiago ibiltzen da zaldiz...».

Klima, lurra edota inguruena bera aipatu ditu Euskal Herriak betetzen ei dituen baldintza egoki horien gainean galdetuta, horrek eragin zuena baitu zaldien hazkuntzan,

adibidez, «zaldiak libre hazteko aukera asko dagoelako».

ONENAK AUKERATZEA DA GAKOA

Agertoki oso zabal baten aurrean gaudela uste du zornotzarrak, eta bidearen zati bat egina dagoela azpimarratu du, «besteek egin duten hori jarraitzea» baino ez baita kontua: «Ingalaterran, Frantzian, Landetan... topera daude sartuta kirol zaldien hazkuntzan, lehiaketarako zaldiak saltzen ari dira... Eurek eginda daukaten lana jarraitzea baino ez dago, eta gauzak ondo egitea, aita eta ama txapeldunen zaldiak lortzea. Jendeak askotan larreak garbitzeko erosten du zaldi bat, baina ez du kontuan izaten zer jatorri daukan

zaldi horrek eta zer aukera dituen, leku berean, gastu berarekin, zaintza berberarekin, errentagarritasun bat ateratzeko aukera dagoenean».

Emearen eta arraren aukeraketan sakondu du Lejarretak: «Onenak aukeratu behar dituzu», ahaztu gabe genetikaren aldetik aukeraketa on batekin hasten dela dena.

Arlo horretan merkatu handi bat dagoela aipatu du Alberdik, zaldien salmentaren bat telefonoz lotu dutela zehaztuz. Azpimarratu du ustiategi batean erabilera ezberdinak uztar daitezkeela: «Guztiz bateragarria da. Izan ere, gu horrela gabilta. Izan dezakezu zaldi bat paseorako, baina ondoan eduki dezakezu beste bat

produkzio baterako. Guk hazten ditugun zaldiak ez ditugu etxean edukitzen. Ezin dugu 8.000-10.000 euro balio duen zaldi bat etxean izan paseoetan erabiltzeko».

Azpimarratu duenez, azokak dituen helburuen artean kirol jarduera aktibitatearen barruan sartzea ere bada, eta horren ondoan, Zaldialdia begiratzeko modua zabalduko duen «amets» bat izango da: «Euskal Herriko kirol zaldi bat sortzea, Euskal Herriko odolgarbi bat, liburu genealogikoarekin, kalitatezko berme guztiekin... Ez da erraza, baina egingarria da. Badaude arabiarrek, anglo-arabiarrek, espainolak..., zergatik ez euskal odolgarbi bat?»

ORDU-ALDAKETA

Gure bizimoduan eta osasunean izan dezakeen eragina leuntzeko gakoak

📁 JENDARTEA / UOC

Iritsi da aurten ere udazkeneko ordu-aldaketa. Bihar goizaldean atzeratuko dugu ordularia neguko ordutegia hartzeko. Goizaldeko hiruretan ordu biak izango dira eta, beraz, ordubeteko loa "irabaziko" dugu. Baina, pertsona batzuentzat, ordu-aldaketak deserosotasun bat ekar dezake. Eguneroko bizitza apur bat aldrebestea izan daiteke zenbait kasutan –etxe-ko haurrak goizeko seietarako esnatzea, adibidez–, baina beste batzuetan fisikoki zein mentalki ere antzematen da.

«Gure garuna nahiko ondo egokitzen da, baina ordu-aldaketaren eragina logura eta neke handiagoa sentitzea izan daitezke. Edo hurrengo egunean lo hartzeko zailtasunak eta kamustasun kognitiboa izatea. Distraktuago egotea ere izan daiteke, eta gogo-aldartean ere eragina izan dezake», azaldu du Diego Redolar neurozientzialari eta Universitat Oberta de Catalunya-ko (UOC) Psikologia eta Hezkuntza Zientzien Ikasketen zuzendariak.

Redolarrek azpimarratzen duenez, sentazio horien arrazoia «erritmo zirkadianoen nolabaiteko 'deserregulazioa'» da. Izan ere, gure burmuina 24 orduz behin erritmo biologiko nagusiak erregulatzeko programatuta dago, hala nola loaldi-esnaldi zikloa eta hormona jakin batzuen askapena, melatoninarena edo kortisolarena, adibidez. Horregatik, 24 orduko tarte hori aldatzean, garunak denbora gehiago beharko du berregokitzeko. «Normalean, ikuspegi fisiologiko batetik, egun bat behar izaten dugu», nabarmendu du Redolarrek. «Baina badira pertsona batzuk zaugarriagoak, hala nola adinekoak edo hau-

Pertsona batzuek egun bat baino gehiago behar izaten dute ordutegi berrira egokitzeko, kontzentratzeko eta erreakzionatzeko gaitasuna galduz. Horrek ondorioak ditu osasun fisikoan eta mentalean, bai eta garapen profesionalean ere. Diego Redolar neurozientzialariak eman dizkigu aurre egiteko zenbait gako.

rrak, agian denbora gehiago behar dutenak garunak erritmo zirkadiano horiek behar bezala erregulatzeko».

Oro har, ordu-aldaketaren ondorengo egunean pertsona batzuek izaten duten neke edo logura sentazioa, "ajea"-ren parekoa, aldi baterako prozesu bat da, eta garunak egoera berrira egokitu behar duela besterik ez du erakusten. «Ordu-

aldaketak pertsonen osasunean izan dezakeen eragina txikia da», dio adituak.

URTEROKO EZTABAIDA

Hala ere, gai polemikoa da. Espainiar Estatuan, Madrilgo Gobernuak batzorde bati eskatu zion txosten bat egiteko. Bere erantzuna izan zen saihestu egin behar zela «ordutegi-ardatzak presaka aldatzea, ados-


Goizaldeko hiruretan ordu biak izango dira eta, beraz, ordubeteko loa «irabaziko» dugu. GETTY IMAGES

tasun partekaturik ez dagoen bitartean eta horrek dakartzan arriskuak eta aukerak gure herritarren praktikan zabaltzen ez diren bitartean». Batzorde horretatik adierazi zutenez, «egungo ordutegia 80 urtez mantendu ondoren, biztanleak ordutegi horretara egokitu dira, eta ez dago hori aldatzeko arrazoi nahikorik».

Aldi berean, Europako Bata-suna aspalditik ari da eztabaidatzen ordu-aldaketa kentzeko aukerari buruz. Kontseilu Europarrak, 2018an, ordu-aldaketak ezabatzeko proiektu bat aurkeztu zuen, urtebete geroago Parlamentuak babestua. Prozesua Kontseiluaren erabakiaren zain dago. Bertan, Estatu kideen gehiengo kualifikatua behar da, eta orain arte eutsi egin zaio. Beraz, europarrak ordua urtean bitan aldatzen jarraitzen dugu.

Ordu-aldaketara egokitzearen zatirik handiena gorputzaren beraren eta egokitzeko behar den denbora-tarte horren araberakoa bada ere, prozesu erosoagoa eta azkarragoa izan da din lagun dezakegu. Har ditzakegun neurri nagusien artean, ohiko errutinak errespetatzea dago, batez ere lotara joateko ohiko orduari dagozkionak. Paseatzera irtetea ere adimena argitzeko metodo erraza da, baina ariketa fisikoa eta kirola ere egin daitezke, edo ohera joan aurretik jarduera lasaigarriak egin. Azkenik, arreta jar diezaiogegu elikadurari, egokitzapen-egun horretarako denboraldiko elikagaietan oinarritutako dieta arin bat aukeratzu.

Errealitatea da ordu aldaketak deserosotasuna ekar dezakeela lehen egunean, baina egokitzapen pixka batekin hobeto kudeatzen lagunduko diogu gure burmuinari, orria azkar pasatzeko.



Goizetik txigortuta

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Zientzia bat da tostadak bere puntuan txigortzearena; konfiantzazko harremana eskatzen du ogi-motaren, txigorgailuaren eta gosaltziarraren artean. Plazer txiki bat ere bada, gosariko gainerako gauzak prestatzen dituzun bitartean, txigortze horren lehen zantzuak usaintzen hastea, harik eta gailuak, susto txiki bat eman ez, bere lanak amaitu dituela jakinarazten dizun arte.

Nahiago nuke txigorgailuarenak bala goizetako ezusteko bakarrak. Gurean, beste askorenean bezala, goiz guztiek baitituzte pieza berberak –pijama, gosariak, hamaiketakoak, motxilak, galtzerdiak, musu-garbitzeak, arropa jakin baten aurkako konplotak,

azken orduko kakagurak–, puzzlea sekula berdin ateratzen ez den arren.

Zuk josi dezakezu, bezperako gauean, biharamunerako planik errealistena eta zuhurrena, baina, kasurik gehienetan, ahalegin antzua izango da: beti gertatuko da zerbait, zuhurtzia gainbaloratuta dagoela berresteko. Eta, ogiaren txigortze-puntuarekin bezala, hemen ere bada zientziarik, ekuazio bat beti: zenbat eta goizago esnatu haurrak, orduan eta berandua go iritsiko zara.

Tira, halako batean irten gara. Seme zaharrenaren hanka laburrek senez markatuko luketena baino askoz ere erritmo biziagoan goaz eta, hala ere, ez da kexatzen. Zubitik begiratzen diot Oriia ibaiari, goizetan bereziki eder

egon ohi denari: arnasa sakon hartzeko baliatzen dut begirada, goizetan naizen presaren pertsonifikazio honekiko enpatia bila-edo.

Paradoxikoki, erlojuak alferrikako dira eszenatoki kronometratu honetan: bidean topatzen dudak jendearen arabera, badakit garaiz ala larri ote nabilen, eta nire egonarria ere horrek erregulatu ohi du.

Bat-batean, azken txanpan semeari animoak ematen ari naizela, galdera bat: «Amatxo, gu ez gara inoiz hilko? Nik hemen bizi nahi dut hiltzen naizen arte». Eta pentsatu dut nor ote naizen ni lau urteko haur bati heriotza zer ote den azaltzeko, sarri bizitza bera sosegu gehiagoz digeritzeko talenturik ez baldin badut. •

Taka-takaz etorri den postala

Miren AZKARATE
BADIOLA

Amak oporretara doan aldiro ohitura zahar bati eusten dio: postala idazten du. Ez niri, amona titulua duenetik ni “rangoz” jaitsi bainaiz, bilobei idazten dizkie aipaturiko postalak.

Ohitura zaharra dela diot, iruditzen baitzait oso jende gutxi idazten dituela jada postalak edo gutunak. Baina niri, behintzat, galdu ezin dugun ohitura polit bat dela iruditzen zait, eta hori helarazten saiatzen naiz era berean nire hurrei. Teknologia berriek komunikazioa bat-batekoa bihurtu dute eta, tira, ongi dago. Baina bata ez

luke bestea kendu behar. Laster giza-kiari ahaztu egingo zaio zer den boligrafo bat hartu eta folio zuri baten aurrean jartzea! Susmoa dut AA-ri (Adimen Artifizialari) datu eta algoritmo batzuk esan eta ez dutela gutuna idatzi ere egingo!

Baina gaurkoan erabat asaldatua naukana da Lisboatik (eta ez postontzi batetik, e? Correos-eko bulegotik) etxera postal horrek bidean eman dituen egunen kopuruak. Zehazki 31 egun!! Amak esana, gainera, nahita ez zutela postontzira bota eta hango Correos-eko bulego batetik bidali zutela. Penin-

tsula Iberikoaren barruan hilabete pasatxo... ÑO! Eta gero Amazon bidez Txinara zerbait eskatu eta ordu gutxitan etxean duzu eskaria. Ezin dut ulertu! Edo hobe esanda, ulertzen dut, baina ez zait gustatzen.

Amonak astebete egin zuen oporretan, eta postalak, ez dakigu non, baina portugaldar langileak pista bat emanda, Madrilan hilabeteko egonaldia egin du.

«Noiz iritsiko da amonaren postala? Gaur ere ez da iritsi?». Bada, ez, ohitura zaharra nahita ari dira zahartzen uzten. Taka-takan dator, baina postalak eta gutunak idazten jarraituko dugu. •

LARREETAKO BAKEA

Gaur, Zeanuri eta Ubideko Larreen Mankomunitatearen XII. Zeharkaldia

AKORDIOA / Xabier IZAGA

Ez da Erronkari-
barren eta Bare-
tos ibarraren
arteko Hiru
Behien Zerga
bezain antzina-
koa, baina atzo goizekoa ere
ez. Dirudenez, Ubide eta Zea-
nuri udalerrri bizkaitarrek urte-
ro egiten duten batzarra ere
bazka larreen ustiapenaren in-
guruan mendeetan izan dituz-
ten gorabeherei amaiera emate-
ko egin zuten akordioarekin
hasi zen duela 120 urtetik gora.

Gutxienez XVI. mendean hasi-
tako auzia zen, mende har-
tan banandu baitzen Zeanuri-
ko elizatek Ubide, ordu arte
bertako auzoa izan zena. Baina
harremanetan jarraitu zuten
eta oraingo harreman onen
erakusgarri da urtero egiten
duten bilera. Gaur bertan izan-
go da aurtengoa.

Urtero, Zeanuriko eta Ubideko udalbatzek larreen man-
komunitateko kontuen kitapena egin, duela 120 urtetik
gora adostu zuten bakea berretsi eta elkarrekin bazkal-
tzen dute, urte batean Zeanurin eta hurrengoan Ubiden.
Bertan izango da gaur aurtengo bilera, eta hura baino
lehen, bi herrien arteko ibilaldi bat, Erdi Aroan Bilbo eta
Gasteiz lotzen zituen errege-bidean zehar.

Bilera horretan Zeanuriko
eta Ubideko udalek larreen
mankomunitateko kontuen
kitapena egiten dute urtero,
eta bakea berresten dute. Bi
udalbatzak urtean behin el-
kartzea ohitura zaharra da, be-
raz. Hasieran bide erdian el-
kartzen ziren, Barazarko
mendatean, hain zuzen; gero,
urte batean udaletxe batean

eta hurrengoan bestean hasi
ziren bilerak egiten. Udalerrri
bakoitzean izena emandako
abelburuen zenbakiak aurkez-
tu eta kontuak egiten dituzte,
eta horren ostean, batzar agi-
ria sinatu eta bi udaletako zi-
negotziek elkarrekin bazkal-
tzen dute. Bilera hori, urtero
errepikatzen den ohitura ez
ezik, betebeharra ere bada.

ERDI AROKO GALTZADAN ZEHAR

Topaketa horren harira, azken
urteetan Zeanuriko eta Ubide-
ko udalek eta Joko Alai eta
Amexier elkarteek herri bion
arteko zeharkaldia antolatzen
dute. Gaurkoa, “Zeanuri-Ubi-
de. Larreen Mankomunitatea-
ren XII. Zeharkaldia”, Bizkaiko
Foru Aldundiak bultzatutako
Ondarearen Europako Jardu-
naldien egitarauaren barnean
ere sartzen da, aurtun “Bideak,
sareak eta loturak” izena duen
horretan, hain zuzen.

Ibilbidea Erdi Aroan Bilbo
eta Gasteiz lotzen zituen erre-
ge-bidearen zati bat da, bi he-
rrien artekoa. Bidarri horreta-
tik igarotzen ziren Bizkaiko
itsas portuetara eta Gaztelako
barnealdera zihoazen herrita-
rrak eta merkantziak.

Antolatzaileek diotenez, hi-
ru helburu nagusi ditu oinez-
ko martxa honek. Lehenen-
goa, Zeanuriko eta Ubideko
Udalek larreen mankomunita-
tearen inguruan urtero egiten
duten bilera historikoa ezagu-
tarazi eta balioestea. Bigarre-
na, zeanuriztarrei, ubidearrei
eta bisitariei udalerrri bietako
ingurumariak ezagutaraztea,
berezi Ubidetik eta Zeanuri-
tik igarota Gasteiz eta Bilbo lo-
tzen zituen Erdi Aroko galtza-
da. Azkenik, Zeanuriko eta
Ubideko herritarren arteko ha-
rremanak sendotzeko balio
izatea ere nahi dute.

Zeharkaldia Zeanuriko pla-
zatik irtengo da 10.00etan,
udaletxearen aurretik. Handik
abiatu eta Undurragako urte-
giaren ertzetik jarraituko dute
Ipiñabururantz, hortik Saldro-
pora igotzeko; igoera horretan,
Txareta izeneko parajea,
arbelgune bat dago, eta bertan
gurdiek mendeetan utzitako
gurpil markak ikusgai daude.
Saldropoko zelaietan, Lapursa-
sitik Otzarretako pagadi ospe-



tsu eta ikusgarriaren ondotik igaro eta Ubiderantz joko du-te. Ubideko plazara iritsi baino lehen, oraindik galtzadaren aztarnak argi eta garbi azaltzen diren tarte batetik igaroko dira. Ibilbideak 12 kilometro inguru ditu eta, patxadaz eginda, bi ordu eta erdi inguruko iraupena.

Doako autobus zerbitzua ere egongo da; 09.00etan, Ubideko plazatik Zeanurira, eta 13.30ean, Ubidetik Zeanurira.


BILERARA SARTZEKO AUKERA

“Zeanuri-Ubide. Larreen Mankomunitatearen XII. Zeharkaldia”-ren ostean, 13.00etan, bi udaletako zinegotziek batzarra egingo dute Ubideko udaletxean, eta nahi duenak bilerara sartzeko aukera izango du. Idazkariak udalerrri bakoitzean erregistratu diren abelburuen zenbakiak azalduko dituzte, batzarkideek bilera agiria sinatuko dute eta denak batera bazkaltzera joango dira, aurten ubidearren kontura. Datorren urtean antzeko bilera egingo dute, baina Zeanuriko udaletxean, eta, beraz, bazkaria ordaintzeko txanda zeanuriztarrena izango da.

Zeharkaldian parte hartzen dutenei 1924an Ubide eta Zeanuriko udalek sinatutako aktaren faksimilea emango diete.

Paraje ederrak maite dituztenek Gorbeialdeko inguru hori ezagutzeko aukera dute; ezagutzen dutenek, berriro gozatzekoa. Denek ere, Ubide eta Zeanuri lotzen zituen galtzada eta bere inguruan azaltzen den ondare naturala eta historiko-etnografikoa bertatik bertara ikusteaz gain, «udazkenean naturak azaltzen dituen koloreen sinfoniaz» gozatu dute, «Gorbeiaiko tontorraren nagusitasuna nabarmentzen den parajeetan zehar».

Aurreko orrialdean, Gorbeiaiko artzainak Igeriñan 1929an, tarteetan Zeanurikoak eta Ubidekoak; eskuinean, Zeanuriko eta Ubideko alkateak, 2010eko bilerako akta sinatu ondoren elkarri eskua ematen. Behean, oraindik ikusgai dagoen Gasteiz eta Bilbo arteko errege-bidearen tarteetako bat.
Jon URUTXURTU





Naiara AGINAKO BENGEO

Donostiako UPV-EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

Aro digitalean, datuak dira urre berria

Munduan zehar gertatzen ari den digitalizazio prozesu honetan, datuak dira egunero erabiltzen dugun teknologiak

bultzatzen dituen erregaiak. Datuak egungo gizarteko urre berria bihurtu dira, negozio eta erakundeentzako aktibo baliotsua, alegia. Azken urteetan hain gora egin duen adimen artifizialak duen datuen beharrak bultzatu du datuen nagusitasun hau. Adimen artifizialeko sistema batek irensten dituen datuen kalitatea eta kantitatea funtsezkoak dira bere eraginkortasunerako. Funtsean, datuak dira adimen artifizialeko algoritmoen elikagai; hau da, sistemei ikasteko, egokitze eta erabakiak hartzeko aukera ematen dietenak.

Horregatik bilakatu da hain garrantzitsua datuak bildu eta gordetzea. Baina batzuetan errealitatean jaso daitezkeen datu horiek guztiak ez dira nahikoa. Zer gertatzen da, adibidez, osasun arloari buruz hitz egiten dugunean? Posible al da datu horiek guztiak erabiltzea gaixoen pribatutasunaren gaitetik? Eredu batek sortu dituen datuak erabiltzeak sortutako arazo honi datu sintetikoek erantzun bat emango liokete. Datu sintetikoak datu errealean ordez erabiltzeko helburuarekin sortu ziren, datuak sortzeko prozesua kontrolatuz, datu errealean antz handiena izatea bermatzeko intentzioarekin.

Osasun arloan jarraituz, datu sintetikoek, pribatutasun-kezkei aurre egiten laguntzeaz gain, badituzte beste erabilera batzuk. Demagun, munduan oso arraroa den gaixotasun bati bu-

ruz ari garela. Zaila da gaixotasun horri buruzko datu erreal asko jasotzea, eta ondorioz, gaixotasun horren eredu izan daitezkeen datu sintetikoak sortzeko gaixotasuna hobeto ezagutzeko aukera emango du.

Baina datu sintetikoek domeinu desberdin askotan sortzen diren beste arazoetan ere lagundu dezakete. Adibidez, gidatze autonomoan jartzen badugu arreta, gaur egun oso zaila da egunerokoan ager daitezkeen egoera guztien datu errealak berreskuratzea. Alde batetik, gidatze autonomoa ikertzen ari diren taldeek ez dute normalean kotxe autonomo bat baino gehiago izaten, garestia delako, eta, gainera, ez da oso bideragarria trafikoaren agertoki desberdinak modu errealean martxan jartzea. Horregatik, simulatzaileen bidez, eman daitezkeen agertoki hipotetiko sinigarriak sor daitezke, eta bertan sortutako datu sintetikoak erabili ikerketarako. Are gehiago, datu sin-

tetiko horiek kontrolpeko egoera batean sortu direnez, datu horiek zuzenean etiketatuta agertzen dira, eta honek asko errazten du teknologia berrien garapena.

Goian aipatutako arrazoiez gain, badaude beste arrazoi batzuk ere datu sintetikoak sortzeko. Baina kasu guztietan, datuen sorrera prozesu horretan hauen erabilgarritasuna kontuan hartzea ezinbestekoa da. Datu sintetikoak benetako datu multzoen kalitatezko ordezkoak izan behar dira. Kalitate hori bermatzerik ez badago, datu sintetiko horiek edukitzeak egin dezakeen kaltea handia izango baita.


Datuak aro honetako urre izanik, datu sintetikoaren inguruan ere negozio handia sortu da. Gero eta enpresa gehiago agertzen ari dira datu sintetikoak sortzen dituztenak edo horretarako aplikazioak garatzen ari direnak. Merkatu honek hurrengo hamarkadan izango dituen diru sarrerek abiadura bizian egingo dute gora. •



Funtsean, datuak dira adimen artifizialeko algoritmoen elikagai. GETTY IMAGES

BEHATXULO[TIK]

Juantxo EGAÑA



IRUÑEKO UDAL ARTXIBOA. ARAZURI BILDUMA. JULIO CIA URIZ.

«JITO ALAI» PILOTALEKUA, 1935EAN

Julio Cia Uriz (Agoitz, 1889 - Iruñea, 1957) argazkilaria afizionatua izan zen hasieran, anaiarekin batera aroztegi mekaniko bat ezarri zuena. Argazkilaritzan profesionalki aritzeko erabakia Gerardo Zaragueta argazkiliarekin zuen adiskidetasunak bultzatu zuen, Iruñeko Gaztelu plazan estudio bat baitzuen. Haren irudiek Iruñeko hiri-eraldaketa dokumentatu zuten, eta, askotan, Nafarroako hiri-buruko Udalak berak enkargatu zituen. Gainera, Katedraleko Kabildoarentzat lan egin zuen 1930eko hamarkadan. Artikulu honekin batera datorren irudia 1935ean hartu zen eta "Jito alai" irudikatzen du, ijitoen komunitateak pilotan jokatzeko erabiltzen zuen frontoia, bere izenak adierazten duen moduan. Frontoi hau 1952an eraikitako Labrit pilotalekuaren atzean dago.

bidaiari

naiz:-en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



hurrengo
ostiralean
zure
kioskoan

1,50€

eta gainera...

PUSHKAR KA MELA
INDIAKO GAMELU
AZOKARIK HANDIENA

BELFAST ETA DERRY
SUSPERTUTAKO
HIRIETARA ITZULIZ

PORTO SÃO BENTO
TREN GELTOKI
IKUSGARRIA

GORDAILUA
MEMORIAREN
ARTXIBOA

HAITZEKO AMA BIRJINA
BURGIKO
ERMITA

Elkarrizketa Tino Soriano: «Argazkiak ateratzen dituen bidaiaria naiz, ez bidaiatzen duen argazkilaria» **Egin planak** Ingeniaritza asmakizun miragarriak; Basterretxearen eta San Telmoko artelanak, solasean; Lesakako Feriak... **Munduan pasieran** «Saltstraumen-go zubian, ur korronteak ikuskizun; Katrinak, Hildakoen Egunean; Alaskako glaziarrek; Craco, Materako hiri mamu turistikoa; Icehotel 34, izotzezko arte galeria...

